

2008ko martxoa


69. zenbakia



Kukubiltxoren barruko bidaia



Urko Aristi – Mikel Artetxe – Nieves Martinez de Morentin – Zorribike taldea



GOIZALDE

Peluqueria Estetica

Servicio de Peluqueria y Estetica



tlf. 94 455 81 44

Anguleri 2 bajo Larrabetzu - Bizkaia



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa
(Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: aikortxori@yahoo.es
www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Belen Gana, Pospolin, Jon Goikouria, Eder Merino eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Jabi Agirre, Ana Mezo, Borja Elorza, Asier Saez, Esti Orozko, Izarne Lezkano, Ohiana Astobieta, Ixone Urrutikoetxea, Mari Carmen Noya, Izaskun Ondarza, Sabin Arana, Iñaki Bilbao, Asier Oruetxebarria, Juan Luis Goikoetxea eta Juantxu Bilbao.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Abutegi

Banaketa: Aikor!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.300

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Sailburuordetza



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria

12 Urko Aristi



30 Zorribike taldea



26 Nieves Martinez de Morentin



24 Mikel Artetxe



14 Arkaitz Mendia



AURKIBIDEA

4Eritxia 6Laburrak eta albisteak
11Behargintza 12Gurean izan da... Urko Aristi
14Gaztea eta... Arkaitz Mendia 16Maratoia Saharan
24Mikel Artetxe 26Nieves Martinez de Morentin
28Emakumearen Eguna Txorierri
30Zorribike Taldea 32Baserri mundua 33Teknologia
34Musika 35Txorierri ezagutu 36Sukaldaritza
37Denborapasa 38Agenda

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldieta Ikastetxeak
Aisialdirako landak - Apolo zerbitzua
Salto - Txangoak - Animalaren heziketa

Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88



BASALBEITIKO TXAKOLINA

Bizkaiko Txakolina
Denon haserretako txakolina



Geltokizua: 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

CAFETERIA GRISSON

G

Fluera eramateko janaria
Urtebetzeak egiten dira
Asteartetik igandera zabalik

Garaioitza, 12 B. baje
Telefonoa: 685 75 11 66
www.cafeteriagrisson.com
48108 LEZAMA (Bizkaia)



JABI AGIRRE

(Zorritzetan euskara elkartearen kidea)

Ume jaio berria laster batean hasten da erabakiak hartzen, aukeratzen. Berak badaki noiz egin negar, titia nahi duela adierazteko; edota irribarre goxoa luzatu etxeko ahots ezagunari. Berak erabakitzen du noiz deitu esnatzeko orduari eta loari, etxekoen erritmoa kontuan izan gabe.

Eguneroko aurrerapena nabaria da umezaroan. Eztarritik ateratzen zaion "amma", "attta" edo antzeko zerbait entzutean, umeak erabaki garrantzitsua hartu duela uste dute ingurukoek. Katukako

Beti erabakitzen, kitzen... kitzen...

saioen ondoren, zutunik mantenduz pausu bi jarraian ematen dituenean, txaloz saritu-ko dute. Eta pitean-pitean joango da gero eta erabaki sakonagoak hartzen.

Etxe zulotik irtetzean lagunak egingo ditu, eta nortzurekin jolastea aukeratuko du. Era berean, jasotako pagarekin erosi dituen gozokiak zeinekin konpartitzea ere erabaki beharko du.

Nerabezaroan eta gaztaroan aukerak eta erabakiak biderkatzen joango dira eta pausuak esparru askotan emango ditu. Laguntzarekin, batzuetan; eta bakardadean, beste askotan: ikasketak, lana, amodioa, aberria, erlijioa, familia, lagunak, etika, sexua, herrigintza, aisialdiak, etxebizitza... Beti erabakitzen, aukeratzen.

Dena dela, askok murriztuta dute erabaki-ahalmena, egoera ezberdinean daudelako langabetuak edo lana dutenak, gaizorik edo osasuntsu direnak, presoak edo askeak.

Helduaroa eta jubilaroa ere "aukerarok" dira. Urteetan egindako ibilaldiak da-

tu-base aberatsaren jabe egiten gaitu, eta erabakitze orduan oso lagungarriak dira datu horiek: nor den hitzekoa (berbakoa) edo hitzontzia (berbontzia) bereizteko; eskatu baino, emateko prestuago nor den jakiteko; nor goitik behera edo maila berean begiratzen duen ohartzeko. Horrela, oztopoak oztopo, bere bizitzako azken etapak diseinatzeko aukerak izaten jarraituko du.

Jaiotzan eta heriotzan erabakitzerik ez badugu ere, sasoiz gaude aukerak eta erabakiak zuhurtziaz eta gizatasunez hartzeko; eta hori norberenak besteengan duen eragina kontuan izanik, gainera.

Oharra: boteretsuek sarritan murrizten dituzte erabakitze-ahalmenak, euren gustuko ez diren aukerak ezabatzeko: egunkariak itxi; erakundeak legez kanpo jarri; lagunak espetxeratu, iritzi politikoak plaza-ratzeagatik; eta, azkenik, milaka euskal herritarrei ordezkari politikoak aukeratzeko eskubidea lapurtu. Kantatzen jarraitu beharko dut: "Ez, ez dut nahi holako zibilizaziorik...".

Takun Takun Takun Takun

Lehenengo baten, *Haritzaren azalera zehatza* Kukubiltxoren antzezlan barriaren estreinaldi egunean, hainbat lagun bildu ginan Zornotzako Aretoan. Han ikusi genduanak era guztietako eritxiak sortu zituala uste dot. Hari bateri jarraituz, bizitzako egoera desbardinak erakutsi jakuzan, eta guggan sentimendu ugari sortarazo be. Nik irakasleoi egiten jakun aitamena nabarmendu gurako neuke.

Irakasleok ikasleen portaeratan ikusten doguna da etxetik dakarrena. XXI. mende honetan bizimodu klaseagaitik edo dana abiadura handian egin behar dalako, edo bestelako motibo batzugaitik, kexaz ibiltzen gara umeak alferrik galduta dagozalako, mizke da-

gozalako. Baina, heziketa honetan guk geuk be badaukagu zer esana.

40 urte atzerago irakasteko moduak oso "autoritarioak" ziran, egurraren podazuz ikasten eben orduko umeek. Gaur egun material pedagogiko-didaktikoetan eta irakasteko moduetan aurrerapen handia dago eta, zorionez, lehenagoko egurrik emoterik ez dago. Baina, badagoz "autoritarioak" izanda hobeto irakasten dabela pentsatzen daben irakasleak, aginteak emoten dauan harrokeria puntuagaz irakasten dabena, ikaslea pertsona oso lege kontuan hartu barik.

Danak daukanez bere neurria, ez da ez "egurraren" pedagogia edota gaur egungo irakasle autoritarioaren peda-



ANA MEZO

(Irakaslea)

gogia, ezta "kolegak" izatearen pedagogia ere. Ikasleari lagundu egin behar deutsegu jakintzak barruratzen, alkarrenganako errespetuan eta jendartean sarri ahaztu egiten diran aspektuak lantzen, esaterako solidarioa izaten eta ez horrenbeste konpetitiboa izaten.

Zorionak, Kukubiltxo, eta suerte on.

Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra

Arretxentxos kalea, 11 - 1.º pisua
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 29 10
Móvil: 985 10 13 17

luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 1 (Iñigo)
Telefonoa eta faxa: 94 452 11 60
48170 Zamudio (Bizkaia)

Ale-apaindegia
M^a Antonia Llodio

Telefonoa eta faxa: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



20 salaketa jarri dira Derion, bonbek eragindako kalteak konpontzeko

Otsailen lehergailu bik egin zuten eztanda PSOEn Derioko egoitzaren aurrean. Ez zen zauriturik izan, baina bonbek kalte handiak egin zituzten inguruko eraikinetan. Guztira, 20 familia inguruk jarri dute salaketa Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzan. Derioztar horiek espero dute Eusko Jaurlaritzak ordainduko dituela etxeetan izandako kalteak –leiho hautsiak, batez ere–. Bitartean, Udalak diru sail bat ireki du haientzat udal aurrekontuan. Kalterik izan duten auzokide gehienek kalteen berri eman diote Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari. Oraindik kalteak jakinarazi ez dituztenek urtebeteko epea dute eskaera egiteko.

Otsailaren 29an, goizaldean, pertsona batek SOS Deiak zerbitzura deitu zuen ETaren izenean. Berak ohartarazitakoaren arabera, lehergailu bi jarri zituzten sozialisten egoitzaren aurrean. Bonbek ordubete

geroago egin zuten eztanda, eta kalteak sortu zituzten Gernikako Arbola kaleko 10. eta 12. zenbakietan. Bertako bizilagunak, 60 bat, kalera atera eta hiru ordu inguru eman behar izan zuten etxetik kanpo. Udalak Nagusien Etxea ireki zuen, auzokideek denbora hori han emateko.

Goizean Derioko Bozeramaileen Batzardea bildu zen eta arrastian elkarretaratzea egin zuten atentatua gaitzesteko.



Upeltegi batera irteera egingo dute Loiun

Loiuko Beti Lagunak jaietako batzordeak Bastidako upeltegi batera irteera antolatu du maiatzaren 31erako. Herriko plazatik goizeko 9etan atera, eta 11:00etan Biasteriko batzokian gosalduko dute. Eguerdian Bastidako Zaldibar upeltegia bisitatuko dute eta, ondoren, bazkaria egingo dute bertan. Menua hurrengoa izango da: txistorra txingarretan erreta, Errioxako piperrak, Errioxako pateak, patatak Errioxako erara, arkume-txuleta aihen-erara, gazta irasagarrekin, ardo ondua, kafea eta kopa. Irteera zein bazkaria trikitilariak girotuko dituzte.

Irteerak 50 euro balio du pertsona bakoitzeko eta izena ematea apirilaren 21etik 29ra bitartean, 11:30etik 13:30era, egin behar da udaletxean (Etor).

Diana eta bazkaria, Lainomendiren 18.

urteurrena ospatzeko

Lainomendi Derioko dantza taldeak 18 urte bete ditu aurtan, eta urteurrena handitasunez ospatuko dute apirilaren 19an eta 20an.

Ekitaldiak goizeko 11etan hasiko dira eta umeentzako jolasak, trikipoteoa, herri bazkaria eta erromeria egingo dituzte egun osoan.

Domekan kalejiran irtengo dira eta dantza agerraldia eskainiko dute institutuan. Agerraldian Txorierriko eta ingurutako dantza taldeek hartuko dute parte; 12, guztira. Hiru bat, Kurutze, Goraintzaileak, Goialde eta Loiuko Dantza Taldea izango dira haien artean.

Konpartsa osatzeko kide bila dabilta Lezaman

Herriko jaietan eta Inauterietan jotzeko turuta konpartsa sortu nahi dute Lezaman. Konpartsa umeek zein helduek osatuko dute, eta ez da beharrezkoa musika-heziketa izatea. Proiektuan parte hartu nahi dutenek Ana Pascual-ekin jarri behar dira harremanetan 661 355 024 telefonora deituta.

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrazaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

ATARRABI

Errementari, 11 - 48150 Sondika
Tfno.: 944 531 928

ZUTARRI S.L.

HARGINTZA, OROKORREAN.

ETXETAN AURREALDEAN HERRI LAGUNKARI BARRIOAN DUTEN BERRITATZA, PTA. ARKUN, BOLDURKIN, URTEAN HANIZ AFANIGARRIN PZARRIN, PTA...

Gorietan 125 mila erpin. 48196 - Lezama - Bizkaia
Tf. 652.724.182 - Fax 944.554.275
e-mail: zutarris@telefonos.com

FONTANERIA DOBARAN

Berriztatze - lanak:

- Etxebizitzak
- Suetsak
- Bainugelak

94 453 3860
658 75 9084

Mitsina, 4 - 48150 SONDIKA

Goiri '78 S. L.

Service Oficial

POL. IZARZA
Tfno.: 94 453 25 15
94 453 38 31
48150 SONDIKA (Bizkaia)

EAJk botoak galdu ditu Txorierrin; PSEk gora egin du

Abstentzioa %32,35koa izan da, duela lau urte baino 13 puntu handiagoa

Jose Luis Rodriguez Zapaterok hauteskunde orokorrak irabazi ditu Estatuan; eta PSE-PSOE, hiru lurralde historikoetan. Txorierrin EAJ-PNV boto gehien lortu dituen alderdia izan da; hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko beste eskualde batzuetan gertatu den moduan, botoak

galdu ditu bertan ere, 954 hain zuzen ere. Horrela, 2004. urteko hauteskundeetan 6.340 boto eskuratu zituen eta aurtengotan 5.384.

PSE-PSOE, berriz, gora egin du Txorierrin eta 753 boto gehiago lortu ditu. Duela lau urte 1.990 boto jaso zituen eta

aurten 2.743.

Beste alde batetik, ezker abertzaleak abstentzioaren aldeko deia egin zuen. Gure eskualdean abstentzioa %32, 35koa izan da, 13 puntu handiagoa duela 4 urte baino.

Herriz herri izandako emaitzak hauek izan dira:

DERIO		
	2004	2008
Errolda	4.203	4.302
Abstentzioa	913 (%21,7)	1.141 (%26,5)
Baliogab.	151	42
EAJ	1.248	1.096
EA	157	98
Aralar	37	27
PSE-PSOE	983	1.275
IU	233	118
PP	401	377
Zuriak	80	132

LARRABETZU		
	2004	2008
Errolda	1.359	1.477
Abstentzioa	248 (%18,2)	719 (%48,7)
Baliogab.	284	17
EAJ	602	500
EA	48	16
Aralar	38	55
PSE-PSOE	39	76
IU	54	36
PP	40	38
Zuriak	6	20

LEZAMA		
	2004	2008
Errolda	1.835	1.915
Abstentzioa	368 (%20,1)	670 (%35)
Baliogab.	127	26
EAJ	940	726
EA	55	44
Aralar	25	32
PSE-PSOE	126	217
IU	74	64
PP	95	94
Zuriak	25	42

LOIU		
	2004	2008
Errolda	1.665	1.663
Abstentzioa	289 (%17,4)	394 (%23,7)
Baliogab.	64	25
EAJ	860	749
EA	76	36
Aralar	12	20
PSE-PSOE	90	157
IU	48	35
PP	200	200
Zuriak	26	47

SONDIKA		
	2004	2008
Errolda	3.535	3.606
Abstentzioa	589 (%16,7)	926 (%25,7)
Baliogab.	164	31
EAJ	1.629	1.429
EA	117	96
Aralar	50	34
PSE-PSOE	444	585
IU	147	85
PP	328	323
Zuriak	67	97

ZAMUDIO		
	2004	2008
Errolda	2.695	2.645
Abstentzioa	593 (%22)	912 (%34,5)
Baliogab.	237	41
EAJ	1.061	886
EA	63	53
Aralar	29	21
PSE-PSOE	353	433
IU	104	49
PP	227	190
Zuriak	28	60



20 AUTOK BAINO GEHIAGOK HARTU DUTE PARTE DERIOKO RALLY RETROAN.

– Martxoaren 1ean eta 2an “Memorial Jose Luis Eguiluz” I. Rally Retroa izan da Derion. Proban 25 urtetik gorako 20 autok baino gehiagok hartu zuten parte.


Parte-hartzaileek ibilbide hau egin behar izan zuten: Matiartu-Ola-Lezama-Busturia-Forua. Ibilbidearen berri proban bertan eduki zuten, eta 50 kilometro orduko abiaduran ibili behar izan zuten asfaltotik zein lurretik. Rallya G. Nuñezek eta L. Andikoetxeak irabazi zuten. Irabazleok Golf MKI autoa gidatu zuten. “Memorial Jose Luis Eguiluz” I. Rally Retroa puntuagarria izan da Euskadiko II. Klasikoen Oponerako.



Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

GALAISA

Estetika eta ileapaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51



**Etengabeko
ordutegia**

Sabinu Arana 1-3. SONDIKA



ESPECIALISTAS EN SONIDO

Isortzerri atarbidetia 15
19950 Sondika
Bilaka efno: 999 523 375

www.premiacionandika.com
jubilacionandika.com

Panel OK STB1



Compatible con la mayoría
de los teléfonos Blue-
tooth. Agenda telefónica
e identificación de la red
de móviles. Pantalla apor-
ta alavoz y micrófono

229 €



**Egunero menua, ostelburuko menua barokoa,
karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak,
famillaren bazkariak**

Antzaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Itina: 94 452 14 19
Faxa: 94 402 20 29

Sabin Askolizaga

Aspazu Argutia
Allinaz



609 47 57 46

Tel: 94 453 8807
Fax: 94 453 6027

Mirinda, 6 (Barrio)
48150 Sondika-Bizkaia



TALLERES JUAN ANDRES

AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torreanaga Ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



Merceria Karmele

Turistiko bihurtza, 7 - ZAMUDIO - T: 94 452 02 53

LEANDRO LANDETA



HARAGITEGIA-URDAITEGIA

Oiz Kalca, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

HORTZ KLINIKA



Idoia Zubietza

Osasun-aztorak & Hortz-ortuak
HORTZ-PLANTIAK - OSTODONTIA ESPELAKO
HARRAK ZINTSU DUTAK



Dr. Zubietza, 11 - 1. eta • 48011 BILBAO • Telefonoa: 94 441 63 73
Urte plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70



GUEDAN

servicios deportivos, s.a.

ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA

Edozei Salatu plaza, 5 - Daxkilduna Calkina, 7. Solaina, 1. Opatu - 48011 BILBAO
Telefonoa: 94 451 80 10 - Fax: 94 451 82 12
Zamudioa Polideportibua: Telefonoa: 94 452 21 20 - Fax: 94 452 30 74



Garmendia ardoak

Pirou pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Fax: 94 452 00 49

OTIKA IKUSIAN

Betaurreko graduatutak
Kontakito lekuak
Eguzkitako beturrekoak
Tahenengo markak

Oiz kalca, 3. etia: 94 452 28 18 ZAMUDIO

GAMINIZ

JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212. parke teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 4°31'13" W

www.gaminiz.com



LIBRERIA SONDIKA LIBURUDENDA

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatutak,
prentsa, aldizkariak, liburak,
papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)



HARAGITEGIA ALBERTO

Txorierrri atarbidetia. 6
Tel.: 452 08 28
48016 ZAMUDIO (Vizcaya)

Helburuak bete ditu Behar Bidasoak

Behar Bidasoa Lezamako gobernuz kanpoko erakundeak (GKE) 2007. urteko balantzea egin, eta pozik agertu da lortutako emaitzarekin. Izan ere, Pereiran (Kolonbia) dituzten proiektu guztiek aurrera egin dute, oraindik lan handia izan arren.

Iaz 317 pertsona prestatu dira prestakuntza tailerretan, eta 165 umek hartu dute parte besoetako egite programetan. Era berean, goi mailako ikasketak burutzeko bekadunak diren 17 gaztetariko 3k amaitu dituzte ikasketak, eta bi hasi dira lanean.

Zentroko jantokietan 300 laguni ematen diete jaten egunero, eta programa sozio-hezitzailea indartu egin da. Nagusientzako alfabetatze ikastaroak ere eman dira eta liburuak, entziklopediak, ordenadore bi eta inprimagailu bat erosi dituzte liburutegirako.

Eskolan izandako berrikuntzarik garritsutsuena matematika arloan eman da, irakasle berria kontratatu baita, ikasgai hori sendotzeko.

Beste alde batetik, joan den urteko Aste Santuan "Ogi gozoa" leku komertziala inauguratu zen, eta, handik hona, okindigiko produktuen eta bazkarien salmentak gora egin du. Horrezaz gainera, ile-apaindegia astegun batzuetan zabaltzen dute, eta zeramika eskola ere ematen dute. Tailerretan emakumeek ekoiztutako materiala saltzeko erakuslehioa ere badago bertan.

Erizaintza programa

Azkenik, erizaindegiak osasunerako hezkuntza programa eta lehen mailako atentzioa mantendu ditu 2007an. Erizaintza programaz arduratzen den GKEko pertsona Pereiran izan zen udan, eta proiektuaren beharrezan berretsi zuen, hango populazioak ez baitu osasun zerbitzurik. Bereziki emakumeek, umeek eta nagusiek behar dute laguntza, desnutrizioa eta garbitasun falta handia baitituzte. Erizaintza programaren laguntza izan duen jende kopurua ia bikoiztu egin zen iaz.

Behar Bidasoa GKEk laguntza handia jaso du instituzioetatik, enpresetatik eta partikularretatik, proiektu hauek guztiak aurrera eraman ahal izateko. Txorieritik, esaterako, 34.000 euro agindu dira Pereirara. Loiuko Udalak 5.000 euro jarri ditu, zentroaren alboko lursaila erosteko; Sondikako Udalak eta Derioko Udalak 12.000 euro eta 15.000 euro eman dituzte hurrenez hurren, zentroko langileei ordaintzeko; eta Zamudioko Udalak 2.000 euro jarri ditu, liburutegirako materiala erosteko.



Loiuko Paella Txapelketan izena emateko epea apirilean zabalduko da

Beti Lagunak jai batzordeak Paella Txapelketa antolatu du ekainaren 28rako, Loiuko San Pedro eta Santa Luzia jaietako egitarauaren barruan. Txapelketa honek laugarren urtea beteko du aurtun.

Izena apirilaren 30etik maiatzaren 10era bitartean eman behar da udaletxean, 10:30etik 13:00era (Etor). Izen emateak 50 euroko kostua du eta, gainera, 30 euroko bermea ordaindu behar da.

Txapelketa liburutegiaren eta osasun etxearen atzeko landan egingo da. Jai batzordeak honako hauek emango dizkie parte-hartzaileei: ura, egurra (gasa ere erabil daiteke) eta arroza. Azken horrek SOS markakoa izan behar du derrigorrean.

Loiuko Udalak, SOS arrozak eta Almacenes Garaioke enpresak babesten dute lehiaketa.

Lehiaketa antolatu dute Zamudioko liburutegian

Apirilaren 23an, eguaztenaz, Liburuaren Nazioarteko Eguna izango da, eta data horren inguruan hainbat ekitaldi antolatu dituzte Zamudioko udal liburutegian.

Lehenengo eta behin, lehiaketa egingo dute. Txapelketa horretan parte hartu nahi dutenak liburutegira hurbildu behar dira, oinarri eta galdetegiaren bila. Parte hartzeko epea apirilaren 1etik 18ra arte zabalduko dute, eta sari-banaketa apirilaren 23an, arratsaldeko 19:30ean, izango da.

Beste alde batetik, eskolako umeek kamishibai teknika (ipuinak kontatzeko Japoniako teknika) landuko dute liburutegian. Ipuin edo lan bat landuko dute, eta eskolako umerik txikienen aurrean aurkeztuko dute. Ekitaldia apirilaren 23an ere izango da. Azkenik, *Liburuzainaren bahiketa* antzezlanaren egingo dute hilaren 26an, zapatuz, eguerdiko 12:00etan.

Osteopatía zentroa
Luis M^o Ascensio
(Kiromasajista - Osteopata)
Lasai
OSTEOPATIA
Larrazari, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 Sakelakoa: 655 74 24 69
emaila: osteopatialasai@euskalnet.net

**Abelino Arraindegia**
Gorbea kalea, 4 - Telefonoa: 94 603 75 75 / 76
48160 DERIO

ADARVE KAFETEGIA
Especialitatea:
gogorrik
plater konbinatuak
pinxkak
GIRO ONA
Sofista, 2 DERRIO
TEL: 94 603 95 33

Miguel Angel Parra
Aislamientos Dentos
TARIFAK
PLASQUEZKO SARRAIK
ETA APALATEGIAK
-SADAI
ERRERATZARARRIAK
-ISOLAMENDU TERMIKO
ETA ARUSTEAK
Mungialde Etorbidea, 4
48160 DERIO (BIZKAIA)
Tel: 670 497 928
Fax: 944 541 121

aldekone
hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87
Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa
Unib. 7, beheko
48160 DERIO (Bizkaia)
-Especialitate guztiak
zentro bakoitzean
-Aurkikuntza doan
-Especialitatea:
umeak

ARRATE
Fortasuna • Osasuna • Ongizatasuna

Arropak eta gorpak inbalekulatuz,
Gepilazuz,
Mamigara eta profigara
Tasara 7, beheko, 48160 DERIO - Telefonoa: 94 454 15 87 - 944 541 121

● Makroinkesta egingo da **AIKOR!** aldizkaria hobetzeko



Zure iritzia hartuko dugu kontuan

AIKOR! aldizkariak sei urte bete ditu aurret. Akatsetatik ikasi eta egindako lanarekin pozik egon arren, aldizkaria berri beharrean gaudela uste dugu. Eta horretarako, ezinbestekoa dugu zure iritzia.

Aldizkariaren erdialdean inkesta bat topatuko duzu. Inkestak aldizkaria hobetzea du helburu, eta oso errazak diren zortzi galdera proposatzen dizkizu. Bost minutu baino ez duzu emango horiei erantzuten. Orria tolestu eta postontzian sartu; ez duzu gehiagorik egin behar. Ezta seilurik erosi ere, inkesta frankeo intunduaren bidez jasoko baitugu. Inkestak apirilaren 10a baino lehenago bidaltzea eskertuko genizuke.

Dena dela, etxean iritzi bat baino gehiago egongo dira. Iritzi guztiak helarazi nahi badizkiguzue, *aikor.com*

webgunearen bidez bidaltzeko aukera ere izango duzue. Bertan inkesta bera aurkituko duzue eta nahi beste itaunketa bete ahalko duzue.

Beste alde batetik, makroinkesta bat ere zabaduko dugu Txorierrin. Makroin-kesta Aztiker enpresako teknikariek egingo dute telefonoz apiriletik maiatzera bitartean. Txorierriko 900 etxetara joko dute, **AIKOR!** aldizkariari buruzko azterketari beste dimentsio bat emateko. Hau da, zuen iritzia eta proposamenak sakonago ezagutu ahal izateko. Zeuri deitzen badizute, denbora apur bat hartu eta teknikariei erantzuteko eskatzen dizugu. **AIKOR!** txorierritar guztion aldizkaria delako eta guztion artean egiten dugulako. Iritzi guztiak hartuko ditugu kontuan eta guztiak erabiliiko ditugu aldizkaria hobetzeko.

**Carnicería
Charcutería
IMAZ**

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TEL.FNOA: 94 454 10 75

DERIO

Eskerrik asko
elortzeagaitik

**KAFETEGIA
IAZI
JATETXEA**

Jate-kidea, 7 - Telefono: 944 54 29 66
DERIO - BIZKAIA

**MARMOLGINTZA
GOYO**

SUKALDE-GAINEKOAK
OBRAK ETA HILERRIAK

Ugaldeguren I ind., 18-B nahia
48160 DERIO (Bizkaia)

Tfnoa.: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

DERIO FRUTADENDA

Sallube, 8
Tfnoa: 605 77 12 62
DERIO

**LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO**

Gorbea kalea, 6
Teléfono / Fax: 94 452 29 10 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**MARMOLERÍA
TXORIERRI
MARMOLDEGIA**

Sukalde eta bainugeletako harriak
fatxada, atariak eta hilerriak

Torrelarragoti Ind., P. 7B - nabe 2.
48170 ZAMUDIO (BIZKAIA)
Tel./ Fax: 94 608 01 41 - 2

**Inmobiliaria
ETORKI**

Mungialde etorbidea, 4 bajo
Tel. 94 454 50 53
Móvil: 607 32 35 53 48160 DERIO

CORMORAN

Regalos y Complementos

Gernikako arbola, 2 * 48160 DERIO * Tel. 94 106 05 24

desira

Belleza y Oligoterapia

Lifting mediante radiofrecuencia
Fotodepilación
Bronceado "sunless"
Ozonoterapia
Masaje terapéutico
Decoración de uñas

Uribe kalea 6, eskumako 1orria - DERIO - Telefonos: 94 151 33 73

**eleizalde
kafetegia**

Zalameñdi, 7
(Lizarren aurrean)

48160 DERIO (Bizkaia)
Teléfono: 94 454 52 88

Liburuaren Eguna ospatuko dute Larrabetzun

Larrabetzuko liburutegiko arduradunek hainbat ekitaldi antolatu dute Liburuaren Egunaren inguruan. Horrela, apirilaren 23tik 28ra bitartean sormenezko idazmenaren tailerra egingo dute, eta eskolako umeei liburutegia bisitatuko dute hilaren 22an eta 23an. Lau eta zazpi urte bitarteko umeei liburu bat egiteko prozesua ezagutzeko aukera izango dute "Liburuetako iratxoa" ekimenaren bitartez, eta zortzi eta 11 urte bitartekoek liburutegiaren antolamenduaren gaineko ariketa praktikoak egingo dituzte.

Beste alde batetik, apirilaren 25ean, "Ipuinekin jolasean" ekitaldia antolatu dute arratsaldeko 17:30ean. Ekitaldi horrek ipuinen aspektu ludikoa zein didaktikoa azpimarratzea du helburu. Hilaren



zehar liburu erabilien azoka ere izango da, eta zozketa egingo dute liburutegira hurbildu eta liburuak hartzen dituztenen artean.

Argazki eta pintura lehiaketa egingo dute Zamudion

Zamudioko Udalak argazki eta pintura lehiaketa antolatu du apirilera. Modalitateko hiru kategoria izango dira: 0-12 urte; 13-17 urte; eta 18 urtetik gora.

Kategoria bakoitzean hiru sari emango dira: 100 euroko, 60 euroko eta 40 euroko erosketak txartelak. Lanak apirilaren 25era arte aurkeztu daitezke udaletxean.

Argazkiek 18x24 cmko neurria izan beharko dute gutxienez. Euskarri gogor batean aurkeztu beharko dira, eta parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu.

Pintura lehiaketari dagokionez, lanen gutxienezko neurria 21x29 cmkoa izan behar da. Margolanak ere euskarri gogor batean jarri beharko dira, eta parte-hartzaile bakoitzak gehienez hiru lan agindu ahalko ditu.

Lan bakoitza pakete batean sartu beharko da. Paketearen kanpoaldean lanaren izenburua, modalitatea eta kategoria idatziko dira, eta barruan lana eta gutunazal itxi bat sartuko dira. Gutunazal itxiaren barruan egileak bere izena, helbidea eta telefonoa idatziko ditu.

CANCHA Derio argazki lehiaketa jarri dute abian

Nafarroako Aurrezki Kutxak (CAN) eta Derioko Argazki Taldeak CANCHA Derio argazki lehiaketa antolatu dute. Gehienez hiru lan aurkeztu daitezke egile bakoitzeko. Argazkiek jatorrizkoak eta originalak eta argitaragabeak izan behar dute. Argazkien neurriak honako hauek izango dira: 18 x 24 cm, gutxienez, eta 50 x 60 cm, gehienez. Lanak kartoi mehe batean itsatsita eta CD batean grabatuta aurkeztuko dira. Kartoi mehean lanaren izenburua jarriko da. Gutunazal itxi baten barruan, parte-

hartzailearen datuak azalduko dira. Gutuna-zalean lanaren izenburua idatziko da.

Lehiaketaren gaia ingurumena izango da. Lanak apirilaren 18a baino lehenago aurkeztu behar dira helbide honetan: CAN, Herriko Plaza, 2, Derio (tel.: 94 454 47 65).

Herritarrek eurek aukeratuko dituzte irabazleak. Hautaketa apirilaren 21etik 28ra egingo da CANen Derioko egoitzan. Pertsona bakoitzak boto bat eman ahalko

du. Irabazleen izenak apirilaren 29an jakinaraziko dira, arrastiko 6etan, CANen bulegoan.

Hiru txeki emango dira saritzat Derioko merkataritzako elkarterako dendetan gastatzeko: 100, 50 eta 30 eurokoak, hain zuzen ere.

Aukeratutako hiru lanek CANen Derioko bulegoa eta DAT elkartearen ordezkatuko dituzte Bizkaiko Foru Aldundiak "Gure ingurumena, gure etorkizuna, gure eskubidea" lehiaketan.

OSKARBI
fotografoak
JOSUETA AIZPUEZ GARCIA
TALLERIKALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL: 944 520 014 / 607 400 078
E-mail: apeze@euskalnet.net

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA
LUBRIFICANTES, COPIAS Y REPARACION
94 452 1616
94 452 1646
Pol. Torrelagotiti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA

ESTILISTA EVA ARDINES
Neska-Mutilen Estilista
AmAr
Antzaria - Gaitzale - Gaitzale-18atzen
Lorenzola. Estak 14500
Urbe Plaza, 1 - C/Deia 48170 Zamudio
Telefona: 94 452 84 18 (Aurreko menda)

Vértigo
GONZALO PEREZ PASTOR
Diseño - Gráfica
IKUSKIZUNEN ANTOLAKUNTZA ETA AHOLKULARITZA
Poligono Torrelagotiti P.B.B
48170 ZAMUDIO (BIZKAIA)
Herriko jantziak/restauranten
Tel: 94 452 22 39 Fax 94 452 22 34

BAR TXIKI
EGUNEKO MENUAK
ESPEZIALITATEA, TORTILLAK
Informakion Herriko Plaza, 6
48170 ZAMUDIO Bizkaia
Telefonoa: 94 452 04 68

AMAJRU ZAMUDIO
Café - Bar
C/Deia 1 - 48170 Zamudio
Tel: 94 452 04 68
C/Deia 1 - 48170 Zamudio
Tel: 94 452 04 68

Sonia G. Ubierna, Behargintza Txorierriko Berdintasunerako Zerbitzuko arduraduna

“Toki-garapena ezin da genero-berdintasunik gabe ulertu”



Aurten ere, Emakume Langilearen Nazioarteko Egunak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak gure gizartean duen egoerari buruzko gogoetarako gunea zabaldu du. Behargintza Txorierriko Berdintasunerako Zerbitzuko arduradunarekin mintzatu gara, bera arduratzen baita eskualde honetan genero-berdintasuna sustatzeaz.

Zer deritzozu emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak Txorierri duen egoerari?

Ez dago gai horri buruzko ikerketa zehatzik, emakumeen egoera sakon aztertzen duen abiaburu-diagnostikorik eza baita lehenengo gabezieta bat.

Hala ere, Mankomunitateak ikerketa bat egin du, oraindik argitaratzeke dagoena. Ikerketa horrek berdintasunak eskualdean duen egoera argitzen lagunduko du, errealitatea ezagutzeko lehen hurbilketa besterik izango ez bada ere. Ezin dugu alde batera utzi, gehienetan, oso zaila izaten dela sexuaren arabera desagregatutako datuak biltzea, orain arte ez delako lehen-tasuneko egitekotzat hartu. Eta horrek, askotan, ikusgaitz bihurtzen du diagnostikoa.

Egoera hau hainbat belaunaldirengan aztertzen bada, zein aldaketa kualitatibo

ikusiko da?

Bistan denez, badaude desberdintasunak belaunaldien artean, baina beste mota batzuetakoak ere. Badago alderdi aipagarri bat era askotako bereizkeria-egoeran gainezartzen dena: “bereizkeria bikoitza edo hirukoitza”. Egoera honen adierazgarria hau da: emakume etorkinen babesgabatasun-egoera bertoko emakumeena eta gizon etorkinena baino askoz larriagoa dela. Beste adibide bat: adineko emakumeak. Pobreziaren feminizazioaren joera nabarmentzen denean, ez dugu garapen-bideko herrialdeetan pentsatu behar, gure hurbileko inguruan baizik.

Nola jarduten du zure sailak, berdintasuna sustatzeko?

Toki-garapeneko agentzia bera barne-lana egiten dabil. Hori genero-berdintasunaren aldeko konpromiso irmoaren ondorioa da. Kanpora begira, berriz, genero gaietan

“Zuzenbidezko berdintasuna lortzeak benetako berdintasuna lortu dugun ustea ekar dezake”

espezializatutako laguntza eta aholkularitza teknikoko zerbitzua dugu udalen zein eskualdeko enpresen eskura, indarreko legeek ezartzen dutena betetzen laguntzeko. Toki-garapena ezin da genero-berdintasunik gabe ulertu.

Zein oztopo gainditu behar da?

Oztopoak oztopo, aukerak azpimarratu nahi ditugu, egon baitaude. Edozelan ere, badago genero-berdintasunaren sustapena zuzendu behar duen erreferentziazko ardatza; hau da, genero-desberdintasuneko egoerez jabetzeko beharra. Zuzenbidezko berdintasuna edo berdintasun formala lortzeak benetako edo izatezko berdintasuna lortu dugun uztea ekar dezake. Begi bistakoa da ez dela lortu, aurrerapenak aurrerapen. Beraz, genero-desberdintasuneko harremanak ikusi eta aztertu beharra dago, egoera hori berriro orekatuko duten neurriak ezartzeko. Egoera hau maila guztietan agerian uztea lehenengo erronka handitzat dugu.



94 453 63 70

berdintasuna@e-txorierri.com

Txorierri Etorbidea 46

Berreteaga Poligonoa 13A

48150 SONDIKA (Bizkaia)

Urko Aristi, eguraldi gizona baino gehiago

“Basurtu ere euskalduntzea lortuko dut”

Tximintx Derioko euskara elkarteak bost urte bete ditu eta, urteurrena ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu zituen otsailean. “Euskara elkarteak, zertarako?” mahaingurua ekitaldi horietako bat izan zen, eta bertan Urko Aristik hartu zuen parte Juan Luis Goikoetxearekin batera.

Testua eta argazkia: Bestorrene

Zer ikusirik duzu mahainguruko gaiarekin?

Hainbeste urtean Mailope euskara taldean ibili naiz, eta banabil oraindik. Topaguneko –euskara elkarteak biltzen dituen erakundea– zuzendaritza batzordeko kidea ere izan naiz. Beraz, euskara elkarteak hurbiletik ezagutzen ditut. Herri aldizkarietan ere banabil: *Mailope* aldizkaria hilero ateratzen dugu eta idatzi, maketatu... egiten dut bertan.

Merezi du halako talde baten lan egiteak? Begira, badut plana astebururako: herrira joan eta egun biak aldizkaria idazten ematea. Lana da, baina gustura egiten dut. Gure ingurua oso euskalduna izan arren, hasi ginenean ez zegoen ezer euskaraz. Eta orain, argazki-oinak baino irakurtzen ez badituzte ere, asko hor dabilta hilero aldizkariarekin. Mikaela, adibidez. Hori inguruko herri txiki bateko emakume nagusia da. Aldizkaria etxera eramaten diogunean, nola edo hala ordaindu nahi digu merienda emanez, gazta... eta gu beti presaka. Behin aldizkarian atera zen, eta orria horman du

jarrita. Aldizkaria eta elkartea oso garrantzitsuak dira berarentzat zein beste askorentzat. Soilik Mikaelagatik merezi du denbora ematea behar horretan.

ETBn egiten duzun lana dela-eta, Bilbon bizi zara orain. Aldaketarik sumatu duzu?

Arribe oso herri txikia da, nekazal giroko herria. Ingu-ruan mendiak besterik ez ditugu, eta zorionak gaur egun Basurtun bizi naizela, mendira begira. Bilbon hormigoi gehiegi dago, nire gusturako, eta horrexegatik erabaki nuen Basurtun pisua hartzea. Ez du ematen hiriburu bizi naize-

nik... Gustura nago eta, gainera, ez dut Bilbora autoz sartu beharrik. Euskara gutxi entzuten da auzoan, galiziarrek nagusi dira-eta han. Baina Basurtu ere euskalduntzea lortuko dut. Badakizue, ez dago nafarroiz ezezkorik esaterik.

Komunikabideetan jarraitzeko asmorik?

Telebistan jarraituko dut momentuz; bihar, batek daki. Telebista zein irratia gustatzen zaizkit; ez dut zailtasunik hitz egiteko orduan... Alfer samarra naiz, eta idaztea gehiago kostatzen zait. Telebista gustatzen zait, baina kanpoko lana: orain zigortuta nago... Isobaren ondoan aurpegia jartzea ondo dago, baina niri gehien gustatzen zaidana hau da: kamara hartu, kanpora irten eta istorioak kontatzea.

Hitz jario hori, berezkoa duzu edo ikasi egiten da?

Berezkoa dela uste dut; ez da fakultatean ikasten. Oso urduria naiz, eta lotsatia. Isiltasunak urduri jartzen nau, eta hitz eragiten dit. Askotan damutzen naiz: “isilik egon banintz...”.

Ezagun bihurtu zara, ezta?

Segun eta non. Toki euskaldunetan banago, bai; jendeak ezagutzen nau. Beste alde batetik, auzokideek ETB 2an egindako lanagatik ezagutzen naute gehienbat. Abuztuan Ana Urrutiaren ordeztu ibili nintzen eta harrezkero gehiagotzat sumatu dut. Batzuek ea soilik udan lan egiten dudana galdetzen didate.

Hurbiletik

Urko Aristi nafarra da; Arribekoa, Araitz bailarakoa. Aralarreko mailoetara igotzeko leku aproposa da hori. Gehienok ETBn eguraldiaren iragarpenak hain era xeblean aurkezteagatik ezagutu dugu, baina badago gehiago.

Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziatu zen Nafarroako Unibertsitatean eta hainbat aldizkaritan ibili da kolaboratzaile lez. Irratian ere eskarmentu handia du: Lekunberriko Aralar irratian, Iruñako Euskalerrria irratian eta Euskadi irratian. Telebistan ETBko *Gaur egun* eta *Teleberri* saioetan dabil, eta gaur egun *Bi errepedean* programako erreportaria ere bada.



Etxebizitzak Zamudioko erdigunean



1, 2, 3 eta 4 logela dituzten etxebizitzak • Duplex
Merkataritzako lokalak • Garajeak eta trastelekuak • Zamudioko erdigunean



• Saltokia: Pago Kalea, Zamudio
Ordutegia: martitzizenetan eta eguenetan, 9:00tik 13:00era

languntzaileak

BBVA



94 452 31 76
94 679 31 42

SAETXE
urbanizaciones

Arkaitz Mendiak biola-jole derioztarra

“Gero eta musikari hobeia izan

Zelan hasi zinen musika munduan?

Lehengusuak biolina jotzen zuen eta lehia-keta bat irabazi zuen. Ondorioz, egunkarian agertu zen eta horrek inbidia izugarria eman zidan. Beraz, 8 urte nituela, izena eman nuen. Geroago, 12 urterekin, biolina utzi eta biola hartu nuen, bere behe-soinua nahiago nuelako. Egia esan, ez nuen serio-egi hartu 16-17 urte bete arte. Orduan konturatu nintzen musika zela niri benetan gus-tatzen zitzaidana, eta karrera arrunta ikasi beharrean, musikan trebatzea erabaki nuen. Geroztik, Bilbon erdi-mailako titulua eta Donostian goi-mailakoa lortu nituen.

23 urte zenituela, goi-mailako ikasketak amaitu eta Bartzelonara joan zinen. Zer dela-eta?

Oso hiri kultural eta kosmopolita iruditu zait Bartzelona betidanik. Gainera, irakasle batek Kataluniako Goi-Mailako Musika Eskolako beste maisu bat gomendatu zidan, eta proba gainditu eta gero, hara joan nintzen. Atzerrira joatea ere pentsatu nuen,

“*Bi urte eman ditut astero-astero flamenkoa jotzen Bartzelonako hainbat “tablaotan” talde batekin*”

Hainbat bizipen ditu Arkaitz Mendiak kontatzeko. Izan ere, 23 urte zituela, biola-jole derioztarra Bartzelonara joan zen musikan trebatzera. Han flamenkoa ezagutu zuen, eta gaur egun musika irakasle dabil Ma-lagan. Bere ibilbidearen berri telefonoz eman digu Arkaitzek.

Testua: Gaizka Eguskiza

baina azkenean maisua hain ona izango zelakoan, Katalunia aldera abiatu nintzen.

Zelan izan zen bizitza bertan?

Etxea topatzeko ohiko arazoak izan nituen, eta musika eskola oso garestia zen. Gura-soek lagundu zidaten, eta nik ahal izan nuen lanean hasi nintzen: musika irakasle, ezkontzetan-eta musikari, zerbitzari... de-netarik egin nuen. Bi urte eman nituen han ikasten eta beste bi, bizi izaten.

Katalunian flamenkoa jo omen zenuen... Zer egiten du biola-jole derioztar batek “tablaot” baten gainean Bartzelonan?

Bitxia da euskaldun bat flamenko jotzen ikustea, bai, eta duela 10 urte ea flamenkoa atsegin nuen galdetu bazenit, ezetz esango nizukeen, inondik inora. Kontua da niri Falla, Albeniz eta horien bezalako Espainia-ko musikarien lana betidanik gustatu izan zaidala. Eta musika horrek lotura handia du flamenkoarekin. Beraz, apurka-apurka hasi nintzen entzuten. Izan ere, Bartzelo-nako Musika Eskolan ikasgai izan nuen, eta

“*Noizbait Deriora itzultzea gustatuko litzaidake, bihotzean herria daramadalako: pentsaera-eta, paisaia, jendea, gogoan ditut*”

irakasle batek talde batekin jarri ninduen harremanetan. Horrela, bi urte eman nituen astero-astero talde batekin flamenkoa jo-tzen hainbat “tablaotan” Bartzelonan. Oso garai interesgarria izan zen, bai horixe!

Hala ere, Malagara joan zinen...

Bai. Euskal Herriari saiatu nintzen oposake-ta gainditzen, baina oso gutxigatik ezin izan nuen. Orduan Andaluziako Juntak plaza batzuk eskaini zituen. Aurkeztu, azterketak egin eta espero ez arren, gainditu nuen 2006an. Kontserbatorioko irakasle ofiziala izatea primeran dago, izan ere, zure kontuak egiteko denbora ere baduzu.

“Nire kontuak” aipatu dituzu. Zertan dau-tza?

Bertako irakasleak, zorionez, gazteak dira. Hori dela eta, bildu egiten gara eta kontzer-tuak ematen ditugu. Gainera, Malagako Flamenkoaren Biurtekoko hemengo artis-ten atalean parte hartu dut gitarra-joleare-kin batera. Jaialdi hori oso garrantzitsua da, eta antzoki batean eskaini genuen kontzer-tua.

Irakasletzat edo musikaritzat hartzen du-zu zeure burua?

Biak. Ez ditut banantzen: musika irakasten duen musikaria naiz. Teknikaz gain, ikasle-ei niretzat musika zer den ere helarazten saiatzen naiz. Gainera, ez diot jotzeari utzi, kontzertu batzuk ere eman ditut-eta.

Urte batzuk daramatzazu kanpoan. Nola-ko esperientzia izan da zuretzat? Musikari hobeia zara?

Nik esango nuke baietz. Zenbait herritatik (Errumania, Kuba, Eslovakia, Argentina...) etorritako musikariekin jotzeko aukera izan



nahi dut”

dut, Bartzelonan, batez ere. Ikasteko prest agertzen bazara, ikasi ikasten da. Eta musika mailan ez ezik, bizitza mailan ere ikuspuntu asko ikusi ahal izan ditut, eta oso aberasgarria izan da.

**Flamenkoaz aparte, beste musika mota-
ren bat interesatzen zaizu?**

Bai. Flamenko musikari askok jazz jotzen dute, eta bide horri jarraitzea dut helburu. Oraindik ez dut kontzerturik eman, baina etorkizunari begira interesgarria izan daiteke.

Etorkizuna aipatuta, non ikusten duzu zeure burua 20 urte barru?

Ez dakit, auskalo! Argi daukat ez ditudala ikasteko grina eta ilusioa galdu nahi. Gero eta musikari hobeia izan nahi dut. Eta gero gerokoa!

Euskal Herrira itzuli nahiko zenuke?

Aitita naizenean, agian bai... Ez dakit bizitzak zer ekarriko didan. Noizbait Deriora itzultzea gustatuko litzaidake, bihotzean herria daramadalako: paisaia, jendea, pentsaera-eta gogoan ditut. Hala ere, ez da sarritan pentsatzen dudan gauza bat.



Arkaitz (eskuinaldean), Los Tarantos taldearekin Bartzelonan.



SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizarean atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

ANTZERKIA

Apirilak 4, barikua,
18:30etan

KARABAS
Karpingaga & Golden Apple Quarter
(famila guztientzako ikuskizuna)

- 12 urte: 3 €
- 12 urte: 5 €

zaberron salmenta
=
venta de entradas

hitzaren onarpena
kulturgarritasun osoa
bestelakoa 944 310 310

en las copias de
autorización de obra
o por teléfono
944 310 310

bbk

txarteldegian
ordu bat lehenago



ZINEA
Irakurle, 18:00etan

- 12 urte: 1 €
- 12 urte: 2 €

Apirilak 6:
EL ARCA DE NOE
(A.G.)

Apirilak 13:
MIXINA
(EUSKARAZ, A.G.)

Apirilak 20:
LASSIE
(A.G.)

Apirilak 27:
URTEMUGA FESTA
(EUSKARAZ, A.G.)

Partekatu: Elizateko Kultur Etxea
Kultura Arloan gertatzen dena
(T: 94.453.51.71)







Alkartasuna basamortura eroan daben txorierritarrak

Gulu, Patxi, Etxahun eta Leire otsailaren 23an ailegatu ziran Smarara, Donostiako lagun bategaz. Larrabetzuarek Sahararen aldeko maratoian parte hartzea eben helburu, baita hori amaitu be. Helburua bete dabe.

Testua: Itxaso Marina / Argazkiak: Gulu

Patxi eta Etxahun sasoi aldetik oso fin ibili ez arren, lau lagunek lasterketa amaitzea lortu eben. Basamortuan korrika egitea gogorra bada, askoz gogorragoa da gaixorik egoten danean, eta Patxi amore emeteko zorian izan zan maratoi erdian. Guluri esker amaitzea lortu eban. Lasterketa barruan lau ibilbide ezberdin antolatu ziran, eta biek 42 kilometrokoa egin eben. Leirek eta Etxahunek bost kilometroko proba hartu eben parte.

Etxahun lesionatuta heldu zan Sahara, eta maratoiaren aurreko egunean lesioa larriagotu egin eutsan ezbehar txiki bat izan eban. Horren ondorioz, proba ez egitea erabagi baeban be, antolatzaileek animatu ostean oinez egitea erabagi eban. Beste alde batetik, Leirek lasterketa baten parte hartu dauan lehenengo aldia izan da. Non eta basamortuan izan behar!

Patxi eta Gulu azaldu euskuen lez, maratoia bera gogorra da; halanda be, euren erritmora ibili ziran, eta harea be nahiko trinkoa zan -dunetatik-eta ez eben korrika egin behar izan-. Ganera, eguna fresko argitu zan, nahiz eta eguerdi aldera

egundoko beroa egon. "Polito bota genduan izerdia".

Maratoian nazioarteko 400 lasterkaririk gora hartu eben parte otsailaren 25ean. "Batzuek irabaztea dabe helburu nagusia, eta beste batzuek erronka gainditu baino ez dabe gura, markari inportantziarik emon gabe. Guk, zorionez, alde biak ezagutzeko aukerea izan dogu".

Itzultzeko gogo

Izan be, Saharakoa alkartasunaren maratoia da. Hori 2001ean antolatu eben lehenengo aldiz helburu honek betetzeko: saharar gazteen artean kirola sustatzea, proiektu humanitarioak finantzatzea, eta herri sahararrari babes morala emotea, besteak beste. Ibilbideak hiru iheslari kanpamendu -Smara, Aosed eta ElAyoun- lotzen ditu sinbolikoki. Bertatik pasatzen diranean, partehartzaileek emakumeak irrintzika dabez zain. "Ikusgarria da, benetan".

Larrabetzuarek material birziklatuz egindako domina bana ekarri dabe Saharatik. Eta han familia itxi dabe. Eta basamortura barriro joateko gogo be ekarri

dabe. Bost egunean sahararren artean bizi izan dira, euren ohituretara moldatu, eta eurakaz konpartitu dabez bizipenak. Baina diñoen moduan, denbora gitxi da herri horren benetako egoera eta bizi-baldintzak ezagutzeko. Horregaitik, hurrengoan gusatuko litxakie tarte haundiagoa berton emotea; eta, posible bada, familia eta lagunak eroan, guztiek esperientziatzat gozatu eta herri sahararraren xalotasunetik ikas dagien.



Bertoko sukaldeak, kalitate oneko sukaldeak.

Kitchen sukaldeak

LAGUNAK: MARATONIA
LAGUNAK: MARATONIA
LAGUNAK: MARATONIA
LAGUNAK: MARATONIA

LAGUNAK: MARATONIA
LAGUNAK: MARATONIA
LAGUNAK: MARATONIA
LAGUNAK: MARATONIA

Quiro-Pharma
Osteopatia y Masaje

Iñaki Valladares
Osteopata eta masajista
R.O.P.-eto Kidea

Mixue bidea / behea
48150 SONDIKA

94 453 89 48

zuk ere baduzu opari hauetako bat jasotzeko aukera Aikor!lagun egin zaitez



lagun
Aikor!
txorierriko aldizkaria

1

AIKOR! aldizkariak
Bilbao BBK Live
jaialdirako sarrera
bi* zozketatuko ditu
Aikor!lagunen artean.

*egun baterako sarrerak

SARRERAK EGARRI ETA GAUTXORI TABERNEN ESKUTIK



zozketak malatzean egingo ditugu

3

...eta gainera:

- Xabi Aburruzagaren
Bizkaiko Trikitrixa diska
- Chinua Achebe idazlearen
Gainbehera dator dena liburua

2

estresatuta?

Arrateren eskutik, masaje
erlaxatzailea eskainiko dizugu



ARRATE

Edertasuna • Osasuna • Ongizatea

Aurpegi eta gorputz-tratamenduak
Depilazioak
Manikura eta pedikura

Txorierri etx., 9 - Arteaga eraikina, 401 DERIO
94 454 15 37

Identitate berria topatu du Kukubiltxok

Kukubiltxo antzerki taldeak *Haritzaren azalera zehatza* lana estreinatu zuen otsailaren amaieran Zornotza Aretoan. Lan horrek etapa berria ekarri dio Larrabetzuko taldeari, 30 urteren ostean, nagusiei zuzendutako lehendabiziko antzezlan baitute. Kritikak ezin hobeak izan dira.

Testua: Itxaso Marina / Argazkiak: Kinkea Films





“Modu herrikoian esaten den moduan, ur gaineke bitsean gaude”, esan digu barre artean Marifeli Etxeandiak. Eta ez da gutxiagorako. Kukubiltxo antzerki taldeak urte bi eta erdi eman ditu prozesu sakon batean murgilduta, eta prozesu horrek Haritzaren azalera zehatza izan du emaitzat: taldeak publiko helduarentzat ekoiztutako lehenengo lana, alegia. Gustura ibili dira Kukubiltxokoak prozesu horretan, egiten zutenaz beti sinestu izan dute. Hala ere, azken hitza publikoak du, eta publikoak berotasun handiz hartu du taldearen etapa berria. “Jaso ditugun iritziak oso gozoak eta onak izan dira”, aipatu du Josu Camarak. Bere kasuan, garai batean antzerkiarekin maiteminarazi zuten irudiak edo lan egiteko erak berraurkitu ditu proiektu honi esker, ikuskizunean islatuta

baitaute.

Ikusleak harrituta atera dira aretotik. “Harrituta aldagetakarekin, ikusi dutenarekin gozatu egin dutelako... Harrituta antzezlanaren ardatz nagusiak duen sakotasunarekin. Gehienek berriro ikusi nahi dutela esan digute”, gaineratu du Marifelik. Eta aktoreak ere pozik irten dira eszenatokitik.

Arrakasta ikusleen iritzian oinarritzen

“ Inoiz ez diogu
uko egin atzekoari,
baina aurrera
jarraitu dugu ”

da beti antzerki munduan. Kukubiltxok oso finkatuta du irudia Euskal Herrian eta lehen aipatutako prozesuak aro berri batean jarri ditu konpainiako aktoreak bai maila pertsonalean, bai maila artistikoan. Bazitekeen ohol gainean ateratzean entseguetan izandako ziurtasuna galtzea. Izan ere, aktoreek inoiz egon ez diren egoera bati egin behar izan diote aurre: norberaren burua biluzik jarri dute publikoaren aurrean; panpinak-eta ez dituzte lagun izan oraingo honetan. Baina, egia esan behar bada, guztiek sentsazio bera izan dute: aktorea kamerino eta agertokiaren arteko bidean galdu eta oholean pertsonaia atera dela. Eta guztiek ziurtasun handiarekin agertu dira eszenatokitik, eta gaitasun handia izan dute sentimenduak eta emozioak islatzeko. Azaldu diguten moduan, estreinaldira oso babestuta joan dira profesionalki zein emozionalki, eta horrek lagundu egin die. “Nik neuk beste proiektu batzuekin ziurgabatasun handiagoa eduki dut, honekin baino”, aitortu du Etxeandiak.

Heldutasun-urtebetetzea

Kukubiltxo taldeak 30 urte daramatza antzerki munduan. Ibilbide luze horretan umeei zuzendutako txotxongilo eta animazio ikuskizunak egin ditu batez ere: *Kukubiltxo begiluze*, *Txirrikiz*, *Ekidazu*, *Kukubel*, *Dir-dir...* Era berean, beste antzerki talde batzuekin eta hainbat zuzendari eta musikarekin lan egiteko aukera izan dute: *Episodes de Pau* taldea, Ramon Barea edo Oskorri, esate baterako. Baina 30 urte, urte asko dira antzerki talde batentzat, eta Camarak dioen moduan, “heldutasuna erakutsi behar da”. Konpainiaren historian erronka handiei egin diete aurre behin baino gehiagotan, oraingoa bezain erradikalak ez izan arren. Momentuak beti topatu dituzte, zeinetan gauza ezberdinak egi-

Hästens 

since 1852


Guztion ametselako
ohreak

www.hastens.com



ARTEAGA koltxoi-denda

Derioko Seminario • 94 454 51 47 • DERIO



Urteurrena heltzeaz zegoen, eta hori nola ospatuko zuten eztabaidan betiko aukera aztertu zuten: muntaia berria egin, eta ospakizun-ekitaldira lagunak eta komunikabideak gonbidatu. Aukera laster baztertu zuten, zerbait barnekoagoa egin behar zutela sentitzen baitzuten. Lehenengo eta behin, euren artean ospatu behar zuten urteurrena, ilusio berriak sortuz. Eta, gero, hortik aterako zen emaitzaz baliatuta heldutasun-urtebetetzea ospatuko zuten publikoarekin, euren arnasarekin. “Publiko barik itoko ginatekeelako”.

Gaia nola bideratu ez zekitela, prozesua baino definituta ez zegoen proiektu batean sartzea erabaki zuten. Helburua prozesuaren barruan sortuko zen. Bitartean, zerbaitera ailegatuko zirela bazekiten; zer izango zen, ordea, ez: autore-lana, umeentzako ikuskizuna, helduentzat, panpinekin, maskarekin...

Prozesua hiru fasek osatu dute. Lehenengoan birziklapenari ekin, eta ordu-ra arte landutako arloak sakondu dituzte beste ikuspuntu batetik. Horretarako, hiru irakasle izan dituzte. Arístides Vargasen eskutik (Malayerba Ekuadorreko antzerki taldearen zuzendaria) interpretazio munduan sartu dira, eta Paco Gonzálezek (Berlingo Familie Flöz antzerki taldearen kidea) maskarekin lan egiteko teknika berria ezagutu dute. Rene Backerrekin (Bartzelonako Institut del Teatre-ko irakaslea) objektuen eta materialen animazioa landu dute.

Kukubiltxo berria

Zer egin nahi zuten definitzeko ordua ailegatu zen bigarren fasearekin

batera. Vargasi proiektuaren alde artistikoa zuzentzeko eskatu, eta Euskal Herria eta Ekuadorren artean oso distantzia handia egon arren, joan-etorriak adostu egin zituzten. Zuzendari argentinarrekin dramaturgiari buruzko lanak egin zituzten. Bere iritziz, aktoreek behar horietan azaltzen zuten mezua ez zegoen umeei zuzenduta; publiko helduari baizik. “Kukubiltxo berria deskubritu behar genuela oso argi genuen aldez aurretik. Beraz, aurrera egin genuen”. Sormen-fase horretan proiektuari tankera ematen hasi, eta antzezlanaren ardatz nagusia zehaztu zuten: mundu irrazionalean oinarritutako identitatea. Mezua bidaia egingo zuten neska itsu baten bitartez helaraziko zuten.

Bigarren fasearen amaieran Quitora abiatu ziren eta bueltan, landu behar zuten fabula esku artean ekarri zuten. “Luxu handia izan da era horretan lan egin ahal izatea. Arazoak hemen itxi, eta bertan sormen-lanean baino ez aritu”. Hirugarren fasean buru-belarri sartu ziren ondoren; ekoizpenean, hain zuzen ere.

Behin betiko testua jaso eta entseguekin hasi ziren, eszenografiak diseinatzeko, janzkerak, musika, argiztapena... Urtarrilean Arístides Vargas eta Charo Francés Ekuadorretik etorri ziren, eta aurretik egindako lana artelan bilakatu zuten, eszenatoki gainean jartzeko. Astebeteko atsedenaldira gozatu ere egin zuten eta otsailaren 29an abiadura izugarriarekin egin zuten salto Zornotza Aretoko oholera. Izan ere, neurri handi batean prozesua behar-beharrezkoa izan da taldearentzat. Are gehiago, konpainiaren etapa berria ikuskizunean kontatzen den historiarekin parekatzen du Camarak. "Ikuskizunean hastapen-bidaia bat azaltzen



–Autore eta zuzendari: Arístides Vargas

–Aktoreak: Marifeli Etxeandia, Iurgi Etxebarria, Aitor Ormaetxea, Josu Camara, Aiora Sedano eta Koko Mujika

–Zuzendariorde eta aktore-teknika-ren zuzendaria: Charo Francés

–Soinu-paisaia, konposatzaile eta interpretazioa: Fran Lasuen, Asier Erzilla eta Balea

–Esenografia: Javier Obregón

–Diseinu grafikoa: Rosalinda Incardona

–Argiztapena: Javi Ulla

–Jantziak eta atrezzoak: Rosalinda Incardona, Conchi Maoño, Nati Ortiz de Zarate

–Itzulpena eta hizkuntza-egokitzapenak: Uxue Alberdi

–Esenografia, atrezzo eta tresnariaren sortzaileak: Kukubiltxo, Javier Obregón eta Conchi Maoño

–Teknikari-taldea: Tarima

–Argazkiak: Kinkea Films

Haritzaren azalera zehatza

Saioa herritik hirira joan den neska itsua da. Nagusitu denean etxera itzuli da. Baina neskak ez du bidaia fisikorik egin; bidaia espiritual batean murgildu da eta bidean zehar, sentimenduak eta emozioak deskubrituko ditu. Eta deskubrimendu horrek helduarora eramango du, bere identitatea osatuz.

Saioaren historian Kukubiltxoko aktore bakoitzeko zati bat dago. Arístides Vargasek tailerretan egindako ariketen emaitzak batu eta modu sotilean integratu ditu drama-turgian. Horrela, tailer horietatik atera zen eszenatokiaren gainean jarriko zuten gaia: identitatea.

Prozesuak euren burua apur bat hobeto ezagutzeko aukera eman die aktoreei. Eta identitatea benetan zer den ezagutu ere ezagutu dute. "Hasiera batean kontrakoa pentsatu arren, identitatea ez da nolakotasun finkoa; dinamikoa da. Eta ziurgabetasunek identitatearen bila joanarazten gaituzte beti. Identitatea definituta dugula uste dugunean, hori berriro bilatzen hasteko oinarria baino ez da". Kukubiltxoren azken ikuskizunak *Haritzaren azalera zehatza* izenburu izatea ez da kasualitatea, zuhaitzaren azalak ez baitio inoiz hazteari uzten, berregiten dagoelako beti.



35 urte bete arte itxarongo duzu independente izateko?

Dunabizkaitasuna lortu nahi duzu eta asier baten? Pasa eta eragitu gure heziketa teknikoaren praktikak, kalitatezkoak eta onak. Lan munduan aurreratu eta zure etorkizuna.



PROFESIONALIZAZIORANTZ BIDE AZKARRA
TXORIERRI
POLITEKNIKAKO IKURTERRIA

Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Calle de Mendizabala, 14 | 48940 Leizor | 94 403 40 80

Telefonoak: 94 403 40 80 | Fax: 94 403 40 81 | info@txorierri.net | www.txorierri.net



PRIMER CURSO DE I+D+i DE INICIACIÓN AL MANEJO DE LA Q.I. EN EL PRIMER VÍDEO DE LA CALIDAD DE LEZORRA



HEZIKETA ZIKLOAK

KIMIKA
Ingurumen-Kimika *Gai maila (1.400 ordu)*

FABRIKAZIO MEKANIKOA
• Mekanizazioa *Enfi maila (2.000 ordu)*
• Proiektu mekanikoen garapena *Gai maila (2.000 ordu)*
• Proiektu mekanikoen garapena *Gai maila (2.000 ordu)*

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA
Energia eta kontrol automatikoen sistemak *Gai maila (2.000 ordu)*
Telekomunikazio eta informazio sistemak *Gai maila (2.000 ordu)*

MERKATARITZA ETA MARKETINA
• Merkataritza eta marketin gaitasunak *Gai maila (1.400 ordu)*

BATXILLERGO TEKNIKO ETA ZIENTIFIKOA

Derioko Zerbitzu eta Merkaritzarako elkarteak



Danerik paraje!

Agencia Pública de
Asesoría y Servicios
de Dena

Director General de
Muestreo y Control
Fiscal

Ezkontzetan-eta
zuen opariak
Derion ere bai!



“Suerte haundia izan dot”



Mikel gertutik

● IBILBIDE PROFESIONALA:

- 1999-2005: Euskaltel-Euskadi
- 2006: 3 Molinos Resort
- 2007: Fuerteventura-Canarias

● GARAIPENAK:

- 2000: Jornal de Noticiasen etapa bi eta sailkapen orokorra
- 2001: Andaluziako Itzuliaren etapa bat
- 2002: Torres Vedraseko sari nagusia
- 2006: Asturiaseko Itzuliaren etapa bat

Zergaitik erabagi hori hartu?

Txirrindularitza une latzak jasaten dabil azken urteotan. Talde profesional gutxi dagoz, eta txirrindulari asko langabezian edo egoera txarrean lotzen gara urte amaieran. Horregaitik erabagi dot itxitea. Agurrak tristeak izaten dira... edo ez. Zelangoa izan da zurea?

Ez, ez da tristea izan. Profesionaletan bederatzi urte egin dodaz, eta horreek urte dezente dira. Ganera, azken urte bietan gustura egon naz. Orain beste bizimodu bat egingo dot, eta lasai nago.

Hiru talde profesionaletan ibili zara: Euskaltel-Euskadin, 3 Molinos Resorten eta Fuerteventura-Canariasen. Zer daroazu bakoitzetik?

Urte gehienak Euskaltelen egin ditut, eta bertan hasi nintzan profesional mailan. Karrerarik garrantzitsuenak be eurakaz korritzeko aukerea izan dot: munduko kopako klasikoak, Tourra, Espainiako Itzulia... Beste talde biak txikiagoak dira, baina ni, behintzat, gustura izan naz bietan. Txirrindulariok ondo konpondu gara alkarrekin eta esperientzia ona izan dot.

Bizikleta ganean 19 urte, eta txirrindularitza profesionalean bederatzi urte emon ostean, Mikel Artetxek agur esan deutso bere kirol ibilbideari. Larra-betzuarrak etapa barria hasiko dau.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Orain dala lau urte alkarrizketatu zinduguzan eta Euskaltelen sartzea betiko ametsa izan zala komentatu zeunskun. Zer izan zan bertatik alde egitea?

Kontratua 2005. urtean amaitu jatan, eta, egia esan, urte horretan ez nenbilen ondo osasun aldetik. Ez eusten kontratua barritu, eta nik amaitutzat emon neban etapa hori. Sasoia berreskuratzea hartu neban helburutzat, maila ona barriz emoteko, eta 2006. urtean beste garaipen bat lortu

neban: Asturiaseko Itzuliaren etapa bat.

Zelango txirrindularia izan zara?

Arlo guztietan nahiko ondo moldatu naze-la uste dot. Azkarra be izan naz, eta horrek lagundu egin deust garaipenak lortzeko orduan.

Zein da zure kirol ibilbidean izandako momentu hori, inoiz ahaztuko ez dozuna?

Txirrindularitzan 19 urte emon dodaz eta momentu on asko izan dira; kategoria guztietan, ganera. Suerte haundia izan dodala uste dot. Baina momentu zehatz bat aipatu behar baneu, 2003. urteko Frantziako Tourraren azken etapan Eliseoko Zelaietara ailegatu nintzan unea nabarmenduko neuke, beharbada. Inportantea izan zan niretzat.

Eta txirrindularitzak itxi deustun atseka-bea?

Azken urteotan egon diran arazoak (dopinga eta abar). Horreek eragina zuzena izan dabe kirol honek gaur egun bizi dauan egoera txarrean.

Zelango txirrindularitza topatu zenduan hasi zinanean, eta zelango txirrindularitza itxi dozu.


OBRAS Y REFORMAS
94 406 04 01 / 615 742 788

Gorrotxa

Berriztatze integralak
Gremioen koordinazioa

1. bidebideko etxebizitzaren berriztatzea, 2. bidebideko
48170 ZAMUDIO
Tel. 94 406 04 01 - Fax 94 406 04 08
Móvil: 615 742 788

GORBEIA MERTZERIA



Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 855 90 08

ZAMUDIOKO ESTANKOA

Tabakoak, tinbrea eta opariak



Tallerreri kafea, 5 ZAMUDIO
Tfnoa: 94 452 12 73

Maila profesionalen hasi eta atoa sortu ziran arazoak, eta egoera latz hori urte gehienetan pairatu dot. Lege barriak ateratzen dabez, egoerak hobera egingo daula esanez; baina okerrera goaz. Txirrindularitzak ez dau erregelamendu finikorik, eta lasterketen antolatzaileek zein UCIkoek nahi dabena egiten dabe. Kalte-
tuak taldeak dira; eta horreekaz batera, txirrindulariak.

Justiziaz tratatzen doguz txirrindulariak?

Komunikabideek ez deuskue mesede haundirik egin. Gehienak kirol honen kontra ibili dira urteetan, eta batzuek horretan jarraitzen dabe oraindino. Komunikabideetan argitaratutakoak eragin handia dau publikoaren iritzian; halanda be, zaleek probetara hurbiltzen jarraitzen dabe, eta alde horretatik ez dogu gutxiespenik nabaritu.

Beste alde batetik, txirrindularitzaren antolamendua be ez dabil ondo. UCI era-

kunderik nagusia da, eta erregelamendu bakarra izan beharrean, asko ditu. Eta txirrindulari profesionalen artean hiru maila ezberdin dagoz, guztiak maila berdinean egon beharrean... Horrezaz gainera, aspaldi honetan antolatzaileak gura dabezan taldeak gonbidatzen dabilz lasterketetara... Borroka haundia dago hor...

Zelan amaituko da UCI eta itzuli handien arteko borroka hori, zure ustez?

Liga potentea antolatu gura izan dabe UCItik kanpo, baina ez dabe lortu eta arazoak sortu dira. Hor dabilz; ea nork indar haundiagoa dauan... Nire ustez, Tourrek irabaziko dau gatazka, eta hemendik aurrera txirrindularitzak nora joko dauan erabagiko dau.

Zertan arituko da Mikel Artexe etorkizunean?

Txirrindularitza orain dala lau zapabost hilabete itxi dot, eta oraindino ez dot ezer pentsatu. Lasai nago.

“Txirrindularitzak
itxi deustan atsekabea
azken urteotako
arazoak dira”

“Tourrek
txirrindularitzaren
norabidea erabagiko dau
hemendik aurrera”

Uria dau atzean



Mikel Artetxek larrabetzuarrak ditu zalerik sutuenak. Hasiera-hasieratik bere kirol ibilbideari arretaz jarraitu deustie, eta profesional mailan lehenengo urratsak emon zituanen, zaletasun hori indartu eta handitu egin zan. Lagunak alboan izan ditu beti Mikelek, eta alboan ere izan zituan otsailean 16an. Egun horretan uritarrek omenaldi hunkigarria egin eutsien, Mikel Artexe Kirol Taldeak an-

tolatuta.

Goizean bizikleta martxa egin eben eta bertan txirrindulari profesionalak be hartu eben parte: Roberto Laiseka, Iban Mayo eta Julen Zubero, euren artean. Era berean, hainbat ekitaldi antolatu ziran: bertso-saioa, trikipotea eta herri bazkaria, besteak beste. Bazkaria Ankapalu sagardotegian egin eben. Jatetxean 100 bat lagun batu ziran eta bazkaldu ostean, opariak eta sorpresak izan ziran. Txirrindulariaren ibilbidea jasotzen dauan ikus-entzunezko muntaia be emon eben. “Pozik hartu dot omenaldia. Lagunek egin deuste azken baten, eta eskertzekoa da”.

Mikel Artetxe Kirol Taldea duela 8-9 urte sortu zan, eta harrezkero ekintza sorta zabala antolatu dabe txirrindularitzaren inguruan. Ekintzon artean lasterketa bat egiten dabe afizionatu mailan. Estatuan oihartzun haundia dauna.

Mikelek txirrindularitza itxi arreren, kirol taldeak bere beharragaz jarraituko dau.

ETXeko ZERBITZUETAN ESPEZIALIZATUAK

VIZCAINA DE PETROLEOS, S.L.

Gasóleo a domicilio

902 330 009
vp@gasoleosvp.com

40106 LEZAMA, BIZKAIA

EXCAVACIONES
AZURMENDI

mpelertg@excavacionesazurmendi.com

MOBILAR 049 100 120

Tel/Fax: 944 554 150

MODA
INFANTIL
Tximeleta

Carriloko Arbela, 8
Telefona: 91 454 11 35
Faxa: 94 454 38 26

18100 ULKIO
Bizkaia

Bar TRIPPY

ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun eta futbolinean jokatu, etorri zaitzez Trippyra, Deriora

Behoko Kalea Bejo
DERIO

Kapritxozko liburuak



Nieves Martinez de Morentin zamudioztarrak gaur egun oso arrunta ez den lanean dihardu: eskuzko azaleztatzailea da. Behar horretan duela 14 urte hasi zen, aurretik berarentzako eta ezagunentzako lanak egiten bazituen ere. Iabitiaurrekoa baserrian bildu gara bera-rekin.

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina

Tailerra liburuz beteta du Nievesek, eta tresneriaz beteta, eta makinaz beteta... Makinok antzinakoak dira, eta inguruan eta Gipuzkoan itxi diren inprimategietan erosi ditu. Liburuak eta artisautza betidanik izan ditu gustuko. Azaleztapenaren gaineko kurtso batzuk egin, eta hori bere ogibide bihurtzera animatu zen. "Bide apur bat arraroa hartu nuen, garai hartan oso jende gutxi aritzen baitzen eskuzko azaleztapenean. Hala ere, bide horrek ikasten eta ikertzen jarraitzeko aukera ematen dit".

Behar horretan aritzeko, ez da beharrezkoa liburuetikiko atxikimendu berezirik izatea, emakumearen esanetan. Gauza guztiekin gertatzen den moduan, egiten

duzuna gustatu behar zaizu. Atxikimendua diseinuarekiko izan ahal da, eskulane-kiko... Eskuekin lan egitea gustatzea eta objektu batek sentiarazten dizuna adierazteko gogoia izatea ezinbestekoak dira.

Nievesek liburuak azaleztatzen ditu, argazki-albumak, faszikuluak... eta liburuak sartzeko (edo ez) kuxkak ere egiten ditu. Baina oso berriztapen gutxi egiten du, azaldu digun moduan, tailerrean ez baitu lan horrek eskatzen duen behar besteko tresneriarik. Azaleztapenetan material ezberdinak erabiltzen ditu: larrua, larruaren antzeko materiala, papera... edo papera eta larrua uztartzen ditu. Hori bai, azken tendentziak kontuan hartzen ditu beti, azaleztapenean ere modak eragin handia du-

lako. "Gaur egun dena dago modan; hala ere, egia da papera gailentzen doala eta larrua pixkanaka-pixkanaka albo batera geldituko dela".

Bezeroak hauek ditu: dendak, prentsa-kioskoak, kopiategiak, liburudendak, liburutegiak eta partikularrak, besteak beste. Azken horiek Nievesengana jotzen dute, merkatuak eskaintzen ez dien zerbait berezi eta ezberdin bila dabiltzalako.

Prozesu korapilatsua

Liburua eskuetan izan bezain laster, horren egoera aztertzen du egin beharreko lana antolatzeko. Bizkarra konpondu baino ez bada egin behar, azala kendu, bizkarra konpondu eta liburua birkonpontzen du. Faszikuluak badira, grapa kenduko die (izanez gero), eta azaltxoia ere bai. Ale guztiak dauden egiaztatu ondoren, azaleztapen-prozesuari ekingo dio: prentsatu, zerratu, josi, kolatu, gillotinez ebaki eta muntatu. Gainera, liburuak edo faszikuluak azalik ez badute, neurriak hartu eta azala egingo du. Titulua ere errotulatuko du bertan.





Formación
y
Traducciones

- Ingelsoz maitatzen
- Finkatzen erregistratzen
- Cambridge Unibertsitateko atzerriko prestatzaile, DOL...
- Euskarazko itzulpenak egiten

Garaioltza 120 D
48196 LEZAMA
T: 94 455 61 69

Erremonteri 16
48150 SONDIKA
T: 94 451 61 08

amtraducciones@euskalnet.net
www.amtraducciones.com

ARANTZA AMONDARAIN LASA
GINEKOLOGOA

Barrio de San Blas 10, 4. 415
a.amondarain@euskalnet.net

48100 Urdulua
Tfona./Faxa: 94 454 44 00

Beste alde batetik, liburuak-eta eskuz josten dira. Alearen lodieraren arabera, hari mehea edo lodia erabiliko da. Haria sintetikoa edo kotoizkoa izan daiteke, eta azken horri argizaria eman behar zaio, korapilorik ez ateratzeko. "Eskuz dagoenez josita, faszikuluz faszikulu, hobeto irauten du. Erabiltzen ditugun kolak oso elastikoak dira; industrialak errazago apurtzen dira. Era berean, berriztatzeetan uretan bihurgarriak diren kolak erabiltzen dira; horrela, liburua berriro konpondu behar bada, ez da narriadurarik gertatuko".

Oso prozesu korapilatsua da, eta ezin da neurtu zenbat denbora behar den lan bakoitza egiteko. Kola eman ostean, adibidez, aleak sikatu egin behar dira eta bitartean, enkargu ezberdinak lan daitezke aldi berean. Horregatik, liburu bat egiteko aste-bete eman daiteke, eta beste bat egiteko, berriz, hilabete. Lanaren konplexutasunak zerikusia du horretan. Larrua lantzeak ere denbora asko eskatzen du, materiala gehiago landu behar baita eta lehortze-prozesua motelagoa delako.

“Gaur egun dena dago modan; hala ere, papera gailentzen doa eta larrua pixkanaka-pixkanaka albo batera geldituko da”

“Lanbide honek ez du oso etorkizun oparorik izango”

Neurrira egindakoak

Nievesek neurrirako azaleztapenak egiten ditu bezeroentzat: sinadura-liburuak, argazki-albumak, opari bereziak... Guztiak ezberdinak dira eta guztiek kalitatezko lanak diren bermea dute. Dena dela, ez diote berak nahi beste enkargurik egiten: eskulana da, materialak garestiak dira, denbora inbertitu behar da eta horrek guz-

tiak garestitu egiten du produktua. "Kapritxoak dira, azken batean. Bakoitzaren egoera ekonomikoak xedatzen ditu lehentasunak, eta liburuak ez dira lehentasun handiena duten kapritxoak. Lanbide honek ez du oso etorkizun oparorik izango, nire ustez". Bitartean, beharrarekin jarraituko du tailerrean eta inguruko artisautza azoketan bere lana emango du ezagutzera.



Hotel Tryp Sondika



Euzkuntzak

OSPATU ZEURE EGUNIK
BEREZIENA GUREKIN

Jaun-hartzeak



TRYP

HOTELES

Carretera de la Avanzada, 2-4 • SONDIKA - 48150

Tel: (34) 91 530052 • Fax: (34) 91 4530620

E-mail: tryp.sondika@solmella.com

Emakumeen irudiak



Los graffitis de mamá
liburuan oinarritutako
antzez lana, Lezaman

Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna izan zen. Data hori egokia da emakumeen egoerari eta generoen artean oraindik dauden desberdintasunei buruz hausnarketa sakona egiteko; baita emakume-metasuna ospatzeko ere. Martxoan Txorierriko emakumeak protagonistak izan dira hainbat ekitalditan: hitzaldiak, mahai inguruak, antzerki emanaldiak, erakusketak, omenaldiak eta bazkariak antolatu dira, besteak beste, hilaren 4tik 14ra bitartean. Ekitaldiotan parte aktiboa hartu dute erakundeek, emakume elkarteek eta herri-tarrek.

Argazkiak: Lagatzu, Borja Elorza, Asier Saez,
Esti Orozko, Izarne Lezkano, Ohiana
Astobieta, Ixone Urrutikoetxea, Mari Carmen
Noya eta Izaskun Ondarza



Literaturari eta dibulgazioari buruzko bilera, Loion



"Euskal emakumea eta beharra" hitzaldia, Zamudion



KIMA
Landarak
LANDARE APAINGARRIA
Gaitziza 98 • Tel.: 94 435 51 00 • Fax: 94 435 61 77
(48196) LEZAMA (LEIZKALIA)

GOIKO TABERNA Taberna-jatetxea
Emakume
Menu: Dendak, antzerkiak, platerak, txakurak, antzerkiak, jantziak, antzerkiak, jantziak, antzerkiak, jantziak
B. Garolitz, 1 • Tfno. y Fax 94 435 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkaia

FMC Foret, S.A.
Zamudioko Fabrika
San Marín sarrua, 130
Zamudio (Bizkaia)
Tel.: (94) 452 50 50
Faxa: (94) 452 11 46
FMC foret

harategia - urdaitegia
MIGUEL
ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA
Mikel Deuna, 7 • DERIO 48160 • T: 451 52 94

Nire Autocasion NA
IMPORTAZIOA ETA
SALMENTA
GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobilak: 686 97 06 41 648 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

Bocateria
otarteko
Pizzeria
ETXEZ ETXEO ZERBITZUA IA TXORIERRI OSOAN
ZAMUDIO
TEL.: 9 44 52 11 42



Udaletxean lila koloreko lazoa jartzea, Zamudion



Oihulari Klown antzerki taldearen emanaldia, Zamudion



Karmen Mendigureni omenaldia, Zamudion



Greban gaude antzezlan, Larrabetzun



"Gizonak eta emakumeak, berdintasunaren alde" hitzaldia, Derion

Apirilak 19

11.00 taldeko txistulariekin diana

11.30 umeentzako jolasak (Sollube kalean, euria egiten badu, frontoian)

13.30 trikipoteoa

15.00 herri-bazkaria (frontoian)
txartelak irakasleek salgai
apirilaren 11 arte
(Nagusia 15€ - Umeak 10€)
argazki erakusketa
bazkal-ostean erromeria

ARIZGOITI

Lainomendi
taldearen 18. urteurrena



Apirilak 20

11.30 kalejira

12.00 dantza agerraldia eskualdeko taldeekin (institutuan)

**HIRU BAT • GURE OHITURAK
KURUTZE • TXIKIAK
GORAINZAILEAK • AGURRA
GOIALDE • SASI ESKOLA
LOIUKO DANTZA TALDEA • UZTARGI
LAINOMENDI • TRABUDU**




lainomendi@gmail.com - 615 73 48 68

Zorribike Taldea



“Antzekoa da mendira oinez edo bizikletaz joatea”

Euskal Herrian ez ezik, Txorierrin be zaletasun handia dago mendira eta bizikletan ibiltzera. Lezamako lagun batzuek biak uztartu dabez eta Zorribike taldea jaio da. Hiru urteera baino ez badabenez egin ere, jendearen erantzunagaz pozik agertu dira Aritz Bilbao eta Juan Manuel Olano sortzaileak.

Testua: Gaizka Eguskiza

Zergatik osatu dozue taldea?

José Manuel: Urtetan daroat bizikleteagaz menditik, eta beti bakarrik ibili izan naz. Nire moduko jende gehiago be badagoela jakinda, alkartzea erabagi dogu.

Zelango abantailak dauz taldea osatzeak?

JM: Alde batetik ez gara mendira bakarrik joaten. Horren ondorioz, komunean jartzen doguz ezagutzen doguzen ibilbideak. Esperientziak batzeko balio dau. Bestetik, talde bat osatzeak Federazioan sartzeko aukerea emoten deus. Hori dala-eta aseguru indibiduala lortzen dogu.

Zeintzuk dira helburuak?

JM: Bi dagoz. Alde batetik, inor mendira bakarrik ez joatea; bestetik, mendi-txirrindularitza bultzatzea. Eta ildo honi jarraituz, pozik gagoz 14 urteko gazte pare batek izena emon dau-eta.

Zenbat jende batu zarie?

Aritz: Jende nahikoa gagoz. Guztira, 30en bat lagun batu gara. Asko iruditzen jat. Halanda guztiz be, jende gehiago dago zaletasun beragaz, baina batzuei kostatu egiten jake dirua ordaindu behar danean. Eta urteko kuota 10 eurokoa baino ez da! Dana dala, hasibariak garenez, batzuek ez gaitue ezagutuko, ziurrenik.

JM: Pozik gagoz eta ezagutzen badozu Lezamako filosofia, ez doa batere txarto. Izan be, lezamarroi parte hartzea kostatzen egiten jaku.

Zelango kideak zarie?

A: Danatarik dago, baina gehienok lezamarriak gara. Lehen Derion gure moduko talde bat egoan, eta bertotik be batzuk etorri dira. Gainontzekoak lagunak, lagunak lagunak, badakizu...

Zelango ekintzak egingo dozuez?

JM: Hilean behin, domekan, ateratzea

“Mendi txirrindularitza bultzatzea eta bakarrik mendira inor ez joatea doguz helburu”

dogu helburu. Gure esparrua Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba da, baita Burgos edo Kantabria be... Egutegia eta guzti prestatu dogu.

A: Ganera, jaietan martxa txiki antolatuko dogu gazteei zuzenduta.

Mendi-txirrindularitzan zabilze. Errepi-deetan egiten danagaz alderatuta, zelango desberdintasunak dagoz?

A: Menditik ibiltzeak ez dau zerikusirik errepidetik joateagaz. Beste era batean egiten da mendian, beste filosofia batez: normalean astiroago joaten da, batzuetan bizikletatik bajatu eta paisaia ikusten dozu... Errepidean, oster, gero eta arinago, orduan eta hobeto.

Normalean nondik ibiltzen zarie?

A: Pista forestaletatik. Gero eta gehiago dagoz. Berton Gangurenen, adibidez, kilometro mordoa dagoz eta pista onak dira ganera. Eta Gorbeia aldean be Pagomakurre bezalako pistak zabaldu dabez eta kilometroak eta kilometroak dagoz.

Egutegia'08

- 4-20: Ullibarri-Banboa urtegia
- 5-18: Gorbeiko Parke Naturala
- 6-15: Muskiz-Castro Urdiales
- 7-20: XIV Galarleiz
- 9-7: I. Martxa-txiki (Lezamako jaiak)
- 10-19: Izki Parke Naturala
- 11-16: Bizkargi
- 28-12: Plazaolako Bide Berdea



Labeleko arrautzak



Maria Jesus Iturbe eta Luis M^a Olabarrieta zamudioztarrek oilategia zabaldu eben joan dan urteko apirilean Daño auzoan. Bertan ekoizten diran arrautzek eusko labela dabe, eta beste ekoizkinetatik ezberdintzen dabezan ezaugarriak honeek dira: zaporea, arrautza-gorringoa horixka izatea eta arrautza-zuringoak dentsitate haundiagoa edukitzea.

Beharra goiztiarra da oilategian, izan be, olioak goizeko 5etan hasten dira arrautzak egiten. Luisek 5.000 bat arrautza batzen ditu egunero. Euskaber Sozietateak komertzializatzen ditu arrautzok Euskal Baserriko Arrautzak izendapenean. Sozietateko langileak astean bitan hurbiltzen dira ustiategira ekoizkina jasotzera. Era berean, sozietateak berak oilandak eroaten deutseez Maria Jesusi eta Luisi, baita hareek hartu behar daben pentsua be.

Oilategiak 800 metro karratu ditu eta bertan 5.600 hegazti dagoz patxadan. Instalazio automatizatu da, eta sistemak barneko temperatura (18°) eta argia (16 orduan izan behar da piztuta) erregulatzen ditu. Olioan jana be kontrolatzen dau, eta leihoak itxi eta zabaldu egiten ditu. Oilategiaren erdian oilo-habia dago, eta han oiloek egiten dabezan arrautzak uhal garraiatzailearen bidez eroaten dira beste

gela batera, bertan batzeko.

Baina oiloek kalitatezko arrautzak egiteko, eroso eta estres barik bizi behar dira. Instalazio ondoan 24.000 metro karratuko lursaila dabe Maria Jesusek eta Luisek; 4 metro karratu, oilo bakoitzeko. Lursail horretan aske ibiltzen dira hegaztiak egun zehar. Eta iluntzen denean, hareek bakarrik sartzen dira berriro oilategira.


Tresneria egiaztatu behar

Oiloak be zahartzen dira eta maiatzetan kendu beharko dabez. Behar hori Euskaberrekoek egiten dabe. Ostean, oilategia –teiltatua barne- garbitu eta desinfektatu egin beharko da; eta sunsiketarik izanez gero, horreek konpondu. Instalazioa hilabetean egongo da itxita, harik eta oilanda barriak jaso arte.

Oilategia automatizatu izateak ez dau esan gura lan gitxi egin behar danik. Tresneria ondo dabilala egiaztatu behar da beti: hegaztiak behar daben jan eta ur kopurua jaso dagiela, tenperatura egokia izan dadila... Batzuetan ezustek be gertatzen diralako. Luisek anekdota bat kontatu deusku: oiloek leku ilunetan jartzen dabez arrautzak eta behin, ekaitzaren eraginez, argia joan omen zan. Goizean oilategira sartu, eta arrautzak edozein lekutan topatu ebazan. Argia dagoanean, oiloak habira sartzen dira arrautzak egitera, leku iluna dalako. Baina kasu horretan, dana ilun egoanez, edonon egin ebezan arrautzak. Eskuz jaso behar izan ebazan 5.000 arrautzok.

Oilategiak urtebete eskas daroa zabalik, eta zamudioztarrek ez dakite oraindino errentagarria izango dan. Oso inbertsio handia egin behar izan dabe, baina irabazteak ataratzeko esperantza ez dabe galdu.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina


lurrindegia **MAMEN** mertzeria
Galka kalea, 6. Derio. 94 454 28 60 / 656 79 38 25


MAPFRE
DERIO
Bosque de la plaza 2/6
48160 Derio (Bizkaia)
T + 94 454 05 00
F + 94 454 05 00
artara@mapfre.com

Merino Plaza, 1
Tel.: 945 059 504
48160 (48100) Markina
Nahikari
Biltxitegia • Erloju-denda
Jaiotzaren proposa
Gai-erakunde markak


LEIRE BEGOÑA
HEAPAINDEGIA
UNISEX HEAPAINDEGIA
ESTETIKA
ORDUTECI JARRAITUA
LASER-DEPIAZIOA
Mungialde etorbidea, 90 DEIRIO
T: 94 454 26 52

LOREGARBI
GARBIKETA ZERBITZUAK
Gutxi duxat, orokorren
Autokorren komantxak.
Masaizak jabi-izak.
Kolezioak eta kaxak.
Urti-erakunde garbiketa.
Kaxak.
Zabur bitak.
Bosque Plaza, 1 - R^a Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net
Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93


multiprecio
Rakel
Gorka, 11 bidea - 48160 (48100) Markina
Sakelako telefonoa: 665 70 28 35

Sakelako telefonoak euskara ikasteko ere balio du

Animatu Multimedia enpresak Hitz-mitz jokoa atera berri du. Hori sakelako telefonoetarako jokoa da, eta dibertimendua eta euskara ikastea uztartzen ditu.

Hitz-mitz puzzle-formatuko jokoa da, eta helburu bi ditu: alde batetik, norberaren euskara maila neurtzeko baliagarria da, eta beste alde batetik, estrategia bat aurkezten dio erabiltzaileari, horrek azter dezan. Jokoa puzzleak egi-

tea gustatzen zaien pertsoneri dago zuzenduta, baita euskara praktikatu nahi dutenei ere. Horrela, jokalaria 50 maila proposatzen zaizkio, zeinetan bere eza-gupenak aztertzen baitira.

Jokoa eskuratu nahi duenak mezu bat bidali behar du 7675 telefono zenbakira. Mezuan HITZ idatzi behar du. Jokoa doan jasoko du. Euskara ikastea ez da inoiz hain dibertigarria izan.



Erabiltzaileek kontrola dezaketen bilatzaile berria

Wikipedia entziklopediaren fundatzaileek Wikia Search Interneteko bilatzailea jarri dute abian. Proiektu horrek internauta guztiak erabiltzeko moduko bilatzaile gardena izatea du helburu. Horrela, bada, bilatzaileak sistema kontrolatzeko aukera ematen die erabiltzaileei, bila-

keten emaitzak ordenatu eta balora ditzaten.



RESTAURANTE JATETXE AYRREGOITI

Tel: Fax: 94 455 34 40 / LAURGOITA ETORRIKA, 37 / 48180 LORU-Bakur
e-mail: ayrregoitik@terra.es // www.restauranteyregoitik.com

URAS
Estetika eta masajea

Aita Patxi Ugaldes, 14 boltoa
Tel: 94 455 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)

Oguiza Hartz Klinika

ZALAZIAZ PROZUTUTA:
Euskaraz hitz egin daiteke
Zure arazoaren inguruko
guztiaz

kuratzaile eraginkorak
Oguiza Hartz Klinika
Larriak eta kronikak tratatzen
Prestatzen dituzte arazoak
Hortz, buru, begi, entzumen, eta
Osoak eta arazoak
Oguiza Hartz Klinika
Larriak eta kronikak
Larriak eta kronikak
Larriak eta kronikak

Angulorri enparantza, 1 • 48180 LARRABETZU • Telefonoa: 94 406 88 90

GAZTELEKU TABERNA

LARRABETZU

Andra Mari, 6 - Tel 94 455 88 97

Miguel Angel Lekue, garrainolaria
Larriak eta kronikak

656 786 744 94 455 80 20

BARATEGIA J. ELORRIAGA

Etxeko berezitasuna: bertoko okela

Iturrikoetxe, 7
Tfn: 94 455 89 41
LARRABETZU

“Musikatik bizitzeko asmoa eta esperantza ditugu”

Iñigo Arias abeslaria, Iker Asla gitarra baxua, Jon López gitarra eta Andoni Ubiaga “Pitu” bateria: 15-16 urte bitarteko gazteok osatzen dute Deadly musika taldea. Lezaman bizi dira gehienak, bertan egiten dituzte saioak eta Lezamako iazko kontzertuan hasi ziren benetan musika munduan.

Testua eta argazkia: Pospolin



“Gehien gustatzen zaiguna hard-rock musika mota da”

Nola ikusten duzue zuen etorkizuna, batez ere musika munduan?

Une honetan DBH ikasten ari gara laurok eta gerorako ikasteko proiektuak ere badi-tugu (moduluak edo unibertsitatea), batez ere pentsa ez dadin musikarekin bakarrik obsesionatuta gaudela, baina hortik bizitzeko asmoa eta esperantza ditugu. Momentuz, gure zaletasuna handia denez, jotzen jarraituko dugu zerbait sendoago irten arte. Guk oso serioan hartu dugu guzti hau, saio ordu asko ematen ditugu, konstantziaz dihardugu... Maketa grabatu ostean, leku askotara bidaliko dugu jendeak ezagutu eta gure erreferente bat izan dezan. **AIKOR!** aldizkariak eskaintzen digun tarima honetatik antolatzaileei eta kultur arduradunei eskatzen diegu bideak irekitzeko, herrietan, jai eta ospakizunetan, gaztetxeetan...

Noiz eta nola hasi zineten?

Lehenengo urratsak 2006ko abuztuan eman genituen eta taldea urte horretako azaroan geratu zen osotuta. Lau kide gara momentuan. Hasieran dena astiro joan zen, baina Lezamako 2007 jaietan kontzertua eman genuenetik gauzak azkarrago doaz.

Oso gazterik aukeratu duzue musikaren bidea... Ba al duzue prestakuntzarik arlo horretan?

Musika betidanik gustatzen zaigu eta antzeko gustuak ditugu, batez ere rocka gustatzen zaigu. Ikastetxean hizkuntza musikalak ikasi dugun arren eta partiturak irakurtzen jakin arren, belarriz funtzionatzen dugu, geuri gustatzen zaiguna joz.

Kontatu mesedez orain arte egin duzuenaz, zeuen curriculumak...

Eman ditugu kontzertu gutxi batzuk jadanik (Bilborock-en, Lezaman, Derion...) eta hainbat abesti konposatu ditugu. Horietatik zortzi bat guztiz prest ditugu maketa batean grabatzeko hil honen amaierarantz.

Zer motatako musika jotzen duzue eta zeintzuk dira gustukoak dituzuen taldeak, zeuen ereduak?

Gehien gustatzen zaiguna eta jotzen duguna hard-rock musika mota da. Taldeen artean, bakoitzak bere gustuak ditu, hala nola, Guns and Roses, AC/DC, Iron Maiden, Metallica, Kaotiko, Turbo Negro eta Led Zeppeling edota Deep Purple.



Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitzetarako igogailuak

Eskailera igogailuak

Plataformak

Arazoei agur...

IGOGAILUAK
ARLAN
ASCENSORES



902 54 08 54 www.arlan.biz

Sutea, Larrabetzu urian

1830. urteko abenduaren 29an itzelezko sutea izan zan Larrabetzun. Hogeita lau etxe inguru kiskali egin ziran, eta beste zenbaitetan be kalte haundiak eragin zituan suak. Garai haretako etxeak zurezkoak ziran eta erraz hartu eben sua. Ganera, ekialdeko haizea ebilen; haize indartsua zan hori eta sutea askoz azkarrago hedatzen lagundu eban.

Sutea Andra Mari kalearen iparraldean egoan etxe baten sortu zan, eta azkar zabaldu zan kalean bertan, eleizearen eraikin barriraino ia ailegatuz. Eleizea zaharra izanez gero, ha be suntsituko eban, ziur asko. Baina eraikin barria sendoagoa zan, eta ezaugarri horri esker zutunik jarraitu eban.

Beste alde batetik, Julio Agirre ikerlariak sutearen ganeko testutxo bat topatu dau liburu baten. Testua Zornotzako base-rritar batek idatzi eban:

"Larravezu en aug (gaur) ogeig etalau eche erreçituen sueq asse andi bazu ques çentidu euneriç sueub gente aq orduter garrego artu çituen ogetamar echeoq eta geago ay au çen gane (gune) gogorra abenduan hogei eta beraçi garrena mile çorçireun da hogei eta amar garren urtean".

Ikusten denez, idazlea ez ei zan oso


aditua; halanda be, eskertu behar deustagu saiatu izana.

Udaletxea (edo taberna zaharra) be erre egin zan sutean, guztiz zurezkoa zan-eta. Hori Astobiza eskribauaren eta bere emaztearen (Loroño familiakoa) etxea izan zan XVII. gizaldeen; baina uriak erosi eutsen tabernea-eta, kontseiluaren batzar aretoa bertan jartzeko. Udaletxe barriaren eraikitze beharrak 1831. urtean hasi ziran. Alboko lurrak erosi zituan eta eraikin haundiagoa egin eben. Baina egoera ekonomikoa ez zan oso ona, eta eraikina nahiko eskas gelditu zan. Holan, 1845. urtean barriro eraikin behar izan eben; gaur egun ezagutzen doguna 1927. urtean altxatu zan.

Foru Aldundiak eskaera egin eutsen Bizkaiko udalei Larrabetzun izandako kalteak ordaintzen laguntzeko. Orotara, 3.737 erreal eta 230 lakari gari lortu ziran, baina laguntza hori ez zan nahikoa izan lehenengo bizimodua berreskuratzeko. Alboko herriek zura eta oholak emon eutsiezan uritarrei, eta etxeak berreraiki ahal izan zituen; dana dala, uriko kale nagusia erdi eraikita izan zan urte mordoan. Gaur egungo Andra Mari kalea XIX. gizaldiaren bigarren erdialdearen eta XX. gizaldiaren bigarren erdialdearen tartean eraikin eben. Eleizeaz aparte, Foteri eta hospital zaharra sutetik onik atera ziran eraikin bakarrak izan omen ziran.

Ondoko irudia Antonio Barandikatarrek 1845. urtean egindako udaletxearen diseinua da; 1831. urtean be diseinu antzekoa egin eben. Edozelan be, eraikin biak ez ziran behar bezain sendoak, diru gutxigaz egin zituelako, beharbada. Etxearen beheko aldean bolalekua jarri eben kasu bietan.

Testua: Sabin Arana



"LAIA HOTEL MUSEOA"



Hidromasaje hornitutako 38 gela ditu. Gainera, euskal gastronomia dastatu ahal

izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarik berritzaileena.

Spa Berri zentroak relax zirkuitu hau eskaitzen ditu: sauna, vaporiuma, jacuzzi, dutxa inguratzaile eta infragorritzko ohea.

Derion kokatuta, berau da hotel ekologiko bakarra energia berriztagarrien sistemei esker.

LEHIAKETA

Asmatu galdera eta sari hau lortu:

Bi laguntzako tratamendua:

TXOKOTERAPIA

(gorputza txokolatez estaltzea)

Hilabete honetako galdera zera da:

Nola hobetuko zenukete Aikor! aldizkaria?

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehenago, telefonoz (944523447), e-mailez (aikor-txori@yahoo.es), edota postaz (Aikor! aldizkaria, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio).

(Saria Laiaren eskaintza duzue).



Parke teknologikoa

Eraikina 806. Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@saviat.net
www.saviat.net

Aurreko galderaren erantzuna:

400 lan

Irabazlea:

Maria Elena Lekue



Sukaldaritza

Bakoren bazterra

Ardoaren osagarriak

Atrebentzia barkatzen badidazue, zuen denbora librerako proposamen batzuk egitea pentsatu dut oraingo honetan. Guztiek zerikusia dute ardoaren munduarekin, baina ez ditut alde teknikitik planteatu, alde atsegin eta dibertigarriago batetik baizik. Ardo batez gozatzeko gonbitea luzatzen dizuet, baita liburu, disko eta pelikula batez ere.

Liburuak: *La guerra del vino*, Don & Petit Kladstrup (Obelisco Edizioak, 2006). Erreza eta atsegina da irakurtzen. Liburuak naziek Frantzia okupatu zuten garaia eraman eta bertako gizonek eta emakumeek espoliazioari aurre egiteko, eta euren "altxorra" –ardoa- babesteko, bizi izan zituzten abenturak azaltzen dizkigu.

Pelikula: *Entre copas*, Alexander Payne (2004). Kaliforniako mahastietatik bidaiatu ahal izango gara, eta protagonistekin batera euren bidaiaren emozionala eta ardo mitiko batzuk konpartitu ere bai.

Diskoa: *Baby Breeze*, Chet Baker (Verve, 1964). Doinu leun eta goxoz baliatuta, Chet-ek, trebe eta sentiberatsu, bere nahasketa pertsonal hori oparitu egiten digu, eta, horrela, gogora ekartzen dizkigu axolagabe uzten ez gaituzten ardo horiek, maitemindu garenak edo betiko baztertzea erabaki ditugunak.

Ardoa: Bidaia egiteko asmorik baduzue, gastronomia "edozein tokitako musikaririk herikoiena" dela gogoratu; eta hemen geldituko bazarete, gure txakolin atera berriak, fresko eta biziak, dastatzeko aukera ederra duzue. Baita ardo beltzak dastatzeko ere. Horiek beratzeko karbonikoa dute eta euren freskotasun eta indar aromatiko guztia ematen digute. On egin.



*Iñaki Suarez,
sumillerra*

Etxeko sukaldaritza

Olio-azea

Osagaiak (lau lagunentzat):

- Kilo eta erdiko azea bat
- 4 berakatz atal
- Oliba-olio txorrostada bat
- Ozpin txorrostada bat
- Ur apur bat
- Gatza

Prestatzeko era:

Lehenengo eta behin, azea garbitu eta txikitu egingo dogu. Presino-lapikoan ura, ozpina eta gatza ipiniko doguz su bizian. Irakiten hasten danean, azea botako dogu. Tapea eta balbulea ipiniko doguz. Balbulea 15

minutuan bueltaka ibili ostean, surtatik kendu dogu. Mahaira aterateko orduan, berakatzak prijidu eta ganetik botako doguz.



*Maite Lekerika,
sukaldaria*

(*) **Oharra:** presino-lapikoaren ordeztu lasterra erabiliz gero, azea bost minutuan izan beharko dogu surtan. Errezeta hau azaloreagaz be prestatu leike. Azalorea bost minutuan izan beharko dogu egosten.

Garbikerak
Ekorron
Telefonoak:
630 71 25 61
94 452 35 91
Udalerriko Zerbitzua, 1
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Fax:
94 452 35 93

CARROCERIAS
TXORIERRI
Servicio de Limpieza y Mantenimiento
TXAPA ETA LABE-PINTURA
Tondoragold Pol. Vial sar C 10, Nave B5. 148160 Zamudio (BIZKAI)
T.Fax: 94 450 29 03

BODEGAS TIERRAS DE SICATE
BORRACHOS
CRUCIAMP
CRUCIAMP
BODEGAS TIERRAS DE SICATE
ACEITES
1.º PREMIO
CASA DE BODEGAS
BODEGAS TIERRAS DE SICATE
Bodegas Ortu Ondo, S.A.
Ugaldagaren Tondoragold Pol. Ind. P-4
Tondoragold 94 452 15 90 Fax: 94 452 36 90
48170 ZAMUDIO
e-mail: ortuondo@telefonos.net

Ercoreca
supermerkatuak
Elikaduran adituak

GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

NAGUSIAK

1280 arima

Jim Thompson ; itzulpena Xabier Olarra

Hiltzailea nire baitan

Jim Thompson

Kontu-jaten : gure herriko emakume eskarmentudunen mahaian

Arantxa Iturbe

Gauza Txikien liburua

Pako Aristi

Euskal Herri imajinario baten alde

S. Leone

HAUR ETA GAZTE

Kenzuraren mundua

M. Morpurgo

Zaldun beltzak

Txiliku

Miren nunca mais

P. Aristi

Olibia, RIsky, Txop Suey eta Mohamed

J. Iturralde

MUSIKA

Larrosik gabeko bidea

Kalte

Taupaden bidetik

Khous

56.gelatik

Karelean



DENBORA PASA

LETRAZOPA

K	T	A	G	J	K	U	K	P	L	Y	X	P
P	A	H	R	D	P	Y	E	X	O	U	E	A
O	I	R	O	F	O	X	P	U	H	O	S	T
R	R	Y	D	G	T	Ñ	J	E	J	N	B	A
B	A	E	I	U	X	H	Z	G	M	E	Ñ	N
T	P	N	S	Y	E	L	L	I	R	M	N	A
D	F	U	J	B	H	D	A	R	K	N	B	T
A	Z	S	Z	K	S	F	O	E	M	B	L	Ñ
O	K	A	R	A	N	A	I	A	U	Ñ	G	U
K	R	Ñ	A	R	L	E	G	Z	S	D	B	I
S	A	E	T	I	R	I	B	I	X	T	H	D
I	T	M	B	N	M	F	J	Z	E	N	F	H

G	A	T	E	R	R	U	A	X	T	N	I	F
S	F	U	J	A	O	H	R	G	I	Y	J	O
G	B	I	T	Z	H	P	K	R	M	N	D	Ñ
A	X	G	O	R	O	S	T	I	E	L	I	K
N	Ñ	R	L	B	F	B	O	E	D	T	Ñ	E
S	I	X	M	D	K	B	Y	I	F	N	X	P
F	H	A	E	B	Y	U	T	A	R	T	E	A
A	R	G	R	P	I	S	Z	K	Ñ	Y	J	G
Z	H	S	G	J	U	T	R	X	M	E	P	O
T	U	M	A	L	E	P	T	O	J	N	P	A
L	N	R	T	M	Z	D	U	X	Ñ	Y	K	O
A	Z	M	A	A	S	X	H	Z	D	Z	L	E

Jarraitzen dogu gure landa eta basoetan, baina orain ez dira arbolak bezain handiak. Ia gai zaren **7 baso landare izenak** aurkitzen* goiko letrazopan.

Kontuan hartu egizu Txorierri esaten dan eran idatzita dauzela.

* Derioztarren euskara liburutik jasoak.

Ezkerraldean **AIKOR!** 68. zenbakia erantzuna.

7 arbol izen.

EUSKAL HERRIKO d'generazioa



Erakusketak

Sondika

–“Jon Deunaren Jaiak 2008” Kartel Lehiaketaren erakusketa, apirilaren 7tik 30era. Udal Liburutegian.

Irteerak

Txorierri

–“Lizardiren ibilbidea”, nagusiei zuzendutako literatur bidaia (Tolosa), apirilaren 20an. Izena ematea: apirilaren 10era arte, zure herriko liburutegian. Txorierriko liburutegiek eta Kultura Sailek antolatuta.

Sondika

–Pagoeta-Aia (Gipuzkoa), apirilaren 20an. Izena ematea: apirilaren 14tik 17ra, liburutegian. Udalak eta Goronda Gane ikastetxeko gurasoen elkarteak antolatuta.

Zamudio

–Gaztelugatxeko San Juan-Bermeo-Urdai-bai-Gernika irteera, apirilaren 27an. Izena ematea: apirilaren 24ra arte. –Iparraldera bidaia, apirilaren 26tik 27ra. Lagatzuk antolatuta.

–Errioxa-Burgos, apirilaren 30etik maiatzaren 4ra. Arroeta mendi taldeak antolatuta.

Lezama

–High School Musical, Arriaga antzokian, apirilaren 6an. –Zalama, apirilaren 13an. Gailur mendi taldeak antolatuta. –Ulibarri-Ganboa, apirilaren 20an. Zorribike antolatuta.

Ikastaroak eta tailerrak

Zamudio

–Ardo dastatze ikastaroa, apirilaren 2an, 3an eta 8an. Lagatzuk antolatuta.

Lezama

–Emakumeentzako IV. Informatika Ikasta-

roa, apirilaren 14tik ekainaren 16ra. Izena ematea: apirilaen 11ra arte.

Larrabetzu

–Sormenezko idazmenaren tailerra, apirilaren 23tik maiatzaren 28ra arte. –Oiloak zirikatzen ikasteko ikastaroa, apirilaren 2an eta 5ean.

Kirola

Sondika

–“Sondikako Udala” XX. Areto-futbol Txapelketako partidak, domeketan (goizean), Goronda Beko polikiroldegian. Apirilaren 27an finalaurrekoak jokatuko dira.

Zamudio

–Bilbao-Bilbao 08 Nazioarteko Zikloturista Proba Klasikoa, apirilaren 6an. Zamudiotik 10:30etik 11:45era bitartean pasatuko dira zikloturistak.

Lehiaketak

Zamudio

–Argazki eta pintura lehiaketa. Lanak aurkezteko epea: apirilaren 25era arte, udaltxean.

Bestelakoak

Sondika

–“Jon Deunaren Jaiak 2008” Kartel Lehiaketako sari banaketa, apirilaren 6an, liburutegian, 13:00ean.

–Izena emateak. Cangas de Onis (Asturias)-maiatzaren 16tik 18ra) apirilaren 7tik 11ra; Herri Urrats (Senpere-maiatzaren 11an): maiatzaren 6a arte liburutegian; Ibilaldia (Zornotza-maiatzaren 25ean): apirilaren 30etik maiatzaren 20era.

–XV. Sondikako Argazki Rallya (irteera Artebe Udal Polikiroldegian; gaia: librea; ibilbidea: Txorierri). Apirilaren 27an,



10:30ean. Sondika Goiri Argazki Elkarteak, Udalak eta Euskal Color laborategiek antolatuta.

–“Sondikako Udala” XX. Areto-Futbol Txapelketako I. Argazki Lehiaketako lanak aurkezteko epea: apirilaren 30era arte. Sariak maiatzaren 18an banatuko dira.

Zamudio

–Izena emateak. Herri Urrats (Senpere-maiatzaren 11an): maiatzaren 6a arte; Ibilaldia (Zornotza-maiatzaren 25ean): maiatzaren 20a arte.

–Udabarriko bazkaria, Adintsuen etxean. Apirilaren 10ean eta 11n.

Lezama

–Izena emateak. Herri Urrats (Senpere-maiatzaren 11an): maiatzaren 6a arte; Ibilaldia (Zornotza-maiatzaren 25ean): maiatzaren 20a arte.

–Kontsumo gutxiko argien banatzea. Apirilaren 4an, 11:00etatik 13:30era, plazan.

–Konpartsa sortu nahi dute. Telefonoa: 661 355 024 (Ana Pascual)

Larrabetzu

–Liburuaren Eguna, apirilaren 22 eta 23an. Umeei zuzendutako bisita liburutegira, tailerrak, jokoak...

LEZAMA
MOTOR

- Carrocería
- Mecánica
- Electricidad
- Neumáticos
- Pre - J.T.V.

Reparación y mantenimiento
vehículos de cualquier tipo

Desmontaje manual
Pasaportes sin coste

Polígono Transmexipol 1, Barrio Pir. 1º
Paseo de la Gloria 100, 48100 LEZAMA
48100 LEZAMA
Teléfono 94 455 50 19
Fax 94 455 50 19

GARAIOLTZA, S.A.
 PROMOSIOAK-ERAIKUNTZAK
LEZAMA
 ETXEBIZITZAK, MERKATARITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK
 LEHEN MAILAKO ERAIKUNTZAK; LEHIATE HANDIAK;
 ORDAINTZEKO ERRAZTASUN HANDIAK
TF.: 94 455 50 19
 Garaioltza auzoa, 128 (behea)
 Lezama (Bizkaia)

LOTERIA LEZAMA

BONOLOTOA
LOTERIA PRIMITIVA
1-X-2
SARITZARRA
EUROMILIOLAK

GARONTZAKO ETA ERREKATZAKO
LOTERIEN ERRESERBAK
ZERBITZUA, ENPRESENTZAT,
TARRENTZAT, ETAB


ARTEKALDE, 159 • 48106 LEZAMA (BIZKAIA) • TELEFONOA/FAX: 94 455 64 87

OSO ALTU EGITEN DUGU HEGAZ

Gure helburua sektore aeronautikoan liderrak izatea da



Gidaritzaren, gure pertsonen inplikazioaren eta hobekuntza jarraikorraren bitartez, berrikuntza eta ingurumenarekiko errespetuarekin batera, Bikaintasuna etengabe bilatuz.



GRUPO

Industria de Turbo Propulsores, S.A.



SHIADE

estilo handiko altzariak

udaberrian
opari
berezia



entradas

24

hilabete
interes barik

Loiu
c/Txorierri etorbidea, 25
Tel. 94 453 12 90
Horario: 10:00 - 20:00

www.shiade.com